

SANDUZELAITIK EUSKAL IZATERA: **EUSKAL NAZIO-IDENTITATEA *KORRIKAN***

GRADU AMAIERAKO LANA

NAN: 73479927X

EGILEA: JOANES ARANGUREN ARRIETA

GRADUA: GIZARTE-ANTROPOLOGIA GRADUA

ZUZENDARIA: AITZPEA LEIZAOLA EGAÑA

DEIALDIA: 2024ko ekaina

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
SARRERA	4
Metodologia	5
MARKO ETNOGRAFIKOA	8
MARKO TEORIKOA	10
Identitateen eraikuntza eta Euskal Herriko joko-zelaia	10
Ekimen kolektiboak identitatean	13
Arrakastaren zergatiak	16
ANALISIA	19
Sarrera	19
Arrakastaren gakoak, auzo-antolakuntza oinarri.	19
Ekimen kolektiboa, komunitatea batuta	22
Auzo kohesioa lantzen	28
Eferbeszentzia kolektiboa Sanduzelain	32
ONDORIOAK	36
BIBLIOGRAFIA	38
WEBGRAFIA	38
IRUDIEN AURKIBIDEA	39

Laburpena:

Nazio-estatuaren egonkortzetik hona, Euskal Herriak ez du tresnarik izan euskal nazio-identitatearen erreprodukzioarako, estatu egituren falta dela eta. 1980etik hona, *Korrika* ekimen kolektibo eta parte-hartzaileak Euskal Herria subjektu gisa, nazio-izaera nabaria izan du hasieratik. Egun, arrakasta handiko ekimena da, milaka eta milaka parte-hartzaile batzen zaizkio ediziotik ediziora. Izaera nazionala, arrakasta... Korrikaren inguruan sortzen den mugimenduak balio ote du euskal izatearekiko atxikimendua sortzeko? Iruñeko Sanduzelai auzoan garatutako behaketa parte-hartzaile hau erantzun horren bila arituko da.

GAKO-HITZAK: Korrika, euskal zera, nazio-identitatea, eferbeszentzia kolektiboa, Korrika batzordea.

Abstract:

Since the consolidation of the state-nations, Basque Country has not had any tool for strengthening its national-identity. Since 1980 the collective and participatory initiative *Korrika* had Basque Country as subject, in fact, a clear national perspective. Nowadays its a very succesfull initiative, thousand of people take part in it. National perspective, succes... does *Korrika* push forward basque national identity? This participant observation carried out in Pamplonas neighbourhood of Sanduzelai its looking for the answer.

KEY-WORDS: Korrika, euskal zera, national identity, collective effervescence, Korrika committee.

Mila esker Sanduzelaiko Korrika batzordeari. Arantzari bereziki, lanean zehar eskainitako laguntza guztiagatik.

SARRERA

Norberak bere burua definitzeko ezinbertzekoa du gizataldea. Garai posmoderno eta indibidualizatu honetan nortasunak gero eta aldenduago daude gizataldearen edo komunitatearen ideietatik. Edo, hori baino, gizataldeen homogeneizazioa geroz eta nabariagoa da eta, beraz, gero eta “antzekoagoak” gara. Norbanakoon identitatean nazio-identitateak lekua izaten du. Euskal Herrian¹, egun, ez dago nazio identitatea indartzeko egitura politikorik. Administratiboki Espainiar eta Frantziar estatuek kontrolatuta egonda, ez dago euskal nazio identitatearen gaineko erabakimena izateko instituziorik.

Euskal izatea², beraz, gainetik dituen estatuen aitzinean babesgabe dago. Honek zailtasunak sortzen ditu euskal imaginario kolektiboaren indartzerako, baita komunitate gisa elkar elikatzeko ere. Eszenatoki hori izanda bertzelako heldulekuak behar ditu euskal izateak, komunitatea sortu eta euskal izate horren birprodukzioa ahalbidetzeko.

Lan honetan hori izan dut xede; Euskal Herriko nazio-identitatearen indartzerako estrategian baliagarria den ekimen bat aztertzea: Korrika. Korrika Euskal Herrian egiten den ekimen parte-hartzaile nagusienetarikoa da. AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) da ekimenaren antolatzailea eta 1980. urtean ospatu zen lehen edizioa, erakundearentzat dirua biltzea eta euskara sustatzea xede zuela. 2024. urtean 23. edizioa ospatu da. Korrikak lehenengo batean zituen (eta dituen) helburuetatik haratago, lan honetan nazio-identitatearen eremuan egiten duen ekarpena aztertuko dut. Nire premisa honakoa izanen da: Korrikak euskal nazio-identitatea indartzeko balio du, ekimenaren izaera parte-hartzailea horretarako ezinbertzeko elementu delarik.

Korrikak duen dimentsioaz jabetuta, harritu ninduen ikustea ez direla asko izan ekimen hori ikerketa objektu gisa izan dutenak. Badaude zenbait lan azpimarragarri, lagun izan ditudan ikerketan zehar, hala nola Teresa del Valle Murgak 1988an publikatutako “Korrika: rituales de la lengua en el espacio” edo Galpasoro eta enparauen “Irri, zirri, urri, Korrika iturri”, bi aipatzearen. Gutxi ikertutako eremua dela ikusita, ekimen parte-hartzaile honen inguruan sakontzea interesgarria suertatu zitzaidan.

Aipatutako jakin-mina hori izanda, zenbait hipotesirekin abiatzen da lana. Batetik, Korrikak euskal nazio identitatea indartzeko balio duen ekimena dela. Korrikak Euskal Herria bere osotasunean proiektatzeko duen moduan asmatzen duelako batik bat; lurraldetasunaren ulerkeran eta erabiltzen duen sinbologia tarteko. Bertzetik, Korrikaren eraginkortasun politikoagatik³. Antolaketa modu egokia duela azpimarratuz, mikroari (auzoka batzorreetan egiten den lanari) ikerketaren pisu nagusia jarriko diot. Azken horri lotuta, identitatean

¹ Euskal Herria erabiliko dut zazpi euskal lurraldeek (Zuberoa, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiak) osatzen duten unitateari erreferentzia egiteko.

² Euskal izatea definitu gabeko kategoria gisa, hainbatetan agertuko da lanean zehar. Agertuko den bertze terminoa “euskal identitatea” izanen da, esanahi bera egozten diet biei. Lan honetan ez dut kontzeptu horien arteko eztabaida jorratuko.

³ Gerora atal oso bat eskainiko diot kontzeptua eta honi emanen diodan adierari.

eragiteko Korrikaren izaera parte-hartzaile eta ekintzailearen garrantzia ere azpimarratuko nuke.

Erabilitako metodoa ere ezberdina izan da. Niri interesatzen zaidana Korrikak duen eragin aplikatua ikustea izan da. Horri erantzuteko asmoz eskala txikira jo dut, inmertsioa Iruñeko Sanduzelai auzoan egitea erabaki nuen; nazioaren eta auzoaren arteko harreman horretan mugituko naiz. Korrikaren auzoko antolaketatik abiatuko naiz, horri emanen diot zentralidadea; auzo mailako lanketatik naziotasunaren lanketa non eta nola gertatzen den ikusiko dut.

Lan honen ekarpen nagusia horri lotuta doala esanen nuke; Korrika aztertzeke metodologia berria erabili dudala. Bertze lan batzuk modu makroagoan, deslokalizatuagoan edo batzorde mailako antolakuntzatik urrutiago ibili dira. Lan honetan, ordea, Sanduzelaiko Korrika batzordeari estuki loturiko ikerketa egiten da. Behaketa parte-hartzailearen bitartez Korrika Batzordean barneratu eta hortik egiten den lanetik abiatuta, aipatutako elementuei erreparatuko diet. Erabilitako metodologia ezinbertzekoa izan da lanari egozten nizkion helburuetaraino iristeko.

Metodologia azaldu aitzin, lanaren egitura argituko dut. Marko etnografikoarekin lanaren metodologia non garatuko den azalduko dut, kasu honetan, Sanduzelairen inguruko informazio argigarria eskainiko dut. Gerora marko teoriko ageri da, lanean landuko diren terminoen inguruko gogoeta eta gaiaren bueltan egin diren ekarpenak jasoko ditut. Marko teoriko horrek gerora garatuko dudana analisiaren oinarriak kokatuko ditu. Analisisan Sanduzelain garatu dudana behaketa-parte hartzailetik atera ditudan gakoak plazaratuko ditut, hauetako batzuk marko teorikoarekin lotuz. Azkenik, lanetik ateratako ondorioak mahaigaineratuko ditut.

Metodologia

Ikerketa Iruñerrian egin nahi nuen; soziologikoki interesgarria iruditzen zitzaidalako, euskarari bai nazioaren aldagaiei dagokienez, baina baita erraztasunak izanzen nituelako ere behaketa parte-hartzailean gauzak ulertzeko, Iruñekoa naiz eta. Zenbait aukera izan ziren mahai gainean, baina Sanduzelai hautatu nuen. Korrika batzordeak ibilbide luzea zuen eta indartsua zen. Soziologikoki, gainera, auzo interesgarria da (atzerritar tasa handienetarikoa duen auzoa, langile klasekoa) eta auzo-mugimendu aktiboa duena. Horrela, Arantza⁴ekin jarri nintzen harremanetan, Korrika batzordeko kidea eta AEKko irakaslea dena. Bere bitartez barneratu nintzen ikerketan.

Behaketa parte-hartzailea, beraz, Sanduzelaiko Korrika batzordean eta honek antolatutako ekimenetan egin nuen. Horretarako, ezinbertzekoa izan dut AEKekin harremana egitea, horren bitartez egin bainuen landa lanera sartzeko kontaktua. Argi nuen lehen momentutik ikerketa emankorra izateko Korrika batzorde indartsu bat behar nuela, ongi funtzionatuko zuena, horren bidez ondorio batzuk atera ahal izateko. Hau lortzeko AEKtik Nafarroa Garaiko

⁴ Agertzen diren pertsonen izenak errealak dira, pertsona horien baimena audio bidez jaso dut.

Korrikako koordinatzailearekin jarri nintzen harremanetan, hitzordu bat adostu eta nire ikerketaren nondik norakoak azaltzeko. Hortik iritsi zen Sanduzelai hautatzeko erabakia.

Ibilbidea ondorengoa izan da: Korrika batzordearen bilerak izan dira nire informazio praktikoaren iturri nagusi; antolakuntza formatik hasita (bertako kidegoaren profilak, bileretan lantzen zena...) eta behaketa parte-hartzailea egiteko uneak hautatzeraino. Urtarrila hasieratik eta Korrika Iruñetik pasa arte (Martxoak 16) bi astetik behin elkartu da batzordea eta bertatik antolatu dituzte ekimenak.

Behaketa parte-hartzailea batzordeetan hasi bazen ere, bi ekimen nagusi behatu ditut: Korrika festa eta simulakroa batetik (egun berean ospatzen dira) eta Korrika txikia bertzetik. Bigarren horren antolatzaileak auzoko heziguneak baziren ere, batzordean izan nuen horren berri. Festa eta simulakroa auzoko plazan arratsalde oso batean egiten diren ekimenak dira, bertan nork (talde edo norbanako) eta nola parte hartzen zuten aztertu nuen, auzoak Korrikarekin duen harremana ulertzeko bide zuzenena bilatzeko asmoz (bi ekimen hauek Korrika batzordeak antolatzen duen "Korrika kulturala"ren parte dira). Hemen 6 bat elkarriketa informal egin nituen, zenbait iritzi eta sententzio azkar eta modu anonimoan jasoz.

Korrika txikian barneratzeko arazo gehiago izan nitzakeela pentsatu nuen, ume eta nerabeen artean barneratzea ez baita auzoko plaza batean agertzea bezain erraza. Espazio horietan barneratzeko Arantzaren laguntza izan nuen, berak lagundu zidan Institutorako sarbidea izaten eta Korrika txikian zeuden irakasleen aurrean nire burua aurkeztzen. Gainera, auzoan kokatutako Iparralde institutuko bi irakasle ezagutzen nituen, horrek ere lagundu zidan.

Irakurleak errazago ulertzeko ez dut banaketarik egin landa lanean jasotako apunteen eta gerora idatzitako analisiaren artean. Dena elkarrekin aurkeztuko da analisiaren atalean, modu honetan irakurketa naturalagoa izanen delakoan.

Batzordean barneratu eta bi behaketa horiek egiteaz gain, elkarriketa sakonak egitea ezinbertzekoa iruditu zitzaidan. Nire sententzio eta jasotako elementuetatik haratago, auzoko errealitatea barrutik eta urte luzez bizi izan dutenen lehen eskuko informazio eta iritzia oso garrantzitsua iruditu zitzaidan.

Bi elkarriketa sakon eta arinagoa izan zen hirugarren bat egin ditut. Lehen elkarriketa Arantzari egin nion, 51 urte ditu eta auzoan jaiotakoa da. AEKko irakasle gisa 25 urte inguru daramatza, eta momentu horretan hasi zen Korrika batzordean. Egun AEKrekin duen loturagatik berak dinamizatzen du batzordea. Bigarrena Rosari egin nion, 54 urte ditu eta auzoan jaioa da, gurasoak Espainiatik Iruñera etorri ziren. San Jorge Colegio Publico-an irakasle gisa jarduten du duela 15 urte. Ikastetxean Korrikaren lanak berak abiatu zuen euskara irakaslearekin batera, bera ikastetxera sartu berritan. Elkarriketa hau, gaztelaraz izan zen, ez baitaki euskaraz. Bi hauetaz gain San Jorge Colegio Publico-an irakasle gisa dabilen Mariari ere egin nion elkarriketa, 23 urteko Ataundarra. Bere lehen aldia da hezkuntzan lanean eta ordezkapena egiten ibili da otsailetik aurrera.

Perfil hauekin auzoa hurbilagotik ezagutu eta lehen eskuko informazioak jaso nahi nituen. Gainera, eremu ezberdinetan ibili dira Rosa eta Arantza eta errealitate soziologiko ezberdinetatik datoz, horrek ikerketa aberasteko gaitasuna izanen zuela pentsatu nuen. Auzo mailako ikuspegi hurbilak baina bi begirada erabat ezberdin.

Behaketak eta elkarriketak egiteko ez dut zailtasun berezirik izan. Horri lotuta, Arantzarekin izandako informazio fluxua ezinbertzekoa izan da lana osatzeko zehaztutako metodologia arazorik gabe betetzeko, berak egin zidan harrera batzordean, nahi bezainbertze laguntza eskaini eta Rosarekin (bertze elkarriketatuarekin) ere, berak jarri ninduen kontaktuan. Esker bereziak berari lan honetan.

MARKO ETNOGRAFIKOA

Iruñeko Sanduzelai auzoa hautatu nuen ikerketa gauzatzeko. Iruñeko 12 auzoetako bat da, 4 auzo (Errotxapea, Buztintxuri, Donibane eta Ermitagaina-Mendebalde) eta bi herri (Orkoien eta Barañain) ditu mugakide. Mapan (1. Figura) agertzen den gorri markaturiko zatia da Sanduzelai. Ipar-mendebaldetik Buztintxuri eta ipar-ekialdetik Errotxapea, hegoaldeko Donibane eta Ermitagaina/Mendebalde ditu. Horrez gain Barañain eta Orkoien herriekin ere badu muga. Auzoaren hegoaldeko muga Arga ibaiak markatzen du. Jarraian dagoen Iruñeko maparen baitan Sanduzelai berdez ageri da..



1. Irudia Sanduzelai Iruñeko mapan (Iturria: Wikipedia)

Azpiegitura aldetik Aquavox bat (pizsina estalia eta kirol ekipamendua duen instalazioa), Civivox bat (liburutegia, kultur eskaintza etab), polikiroldegia edota futbol zelaia daude auzoan. Gainera, Landaben industriagunearen zati handi bat barnebiltzen du. Industriagune hori garrantzitsua da Nafarroa Garaiaaren ekonomian, batik bat, Volkswagen enpresaren fabrika hor baitago. Bertze azpiegitura garrantzitsu bat dago Sanduzelain, izan ere, Iruñeko RENFE tren geltokia auzoaren sarreretako batean dago. Buztintxuri eta Errotxapea auzoetatik iristen (ipar-ekialdetik) "Cuatro Vientos" gisa ezagututako zonaldean.

Aipaturiko industriagunea auzotik hain gertu egoteak migranteen etorrera ekarri du aspaldidanik. Pasa den mendean nagusi zen Espainiar Estatutik zetorren migrazioa, egun bertze estatu batzuetatik dator migrante gehiago. Geroago sakonduko dut honetan.

Industriagunetik eta "Cuatro Vientos"era doa Sanduzelaiko kale nagusia, San Jorge etorbidea. Auzo guztia zeharkatzen du kale horrek, 2.7km-ko luzera duelarik. Lau karrilez osatutako errepidea da, bi karril dituen noranzko bakoitzean. Auzoa lau zatitan banatzen duen biribilgune bat ere badago. Honen inguruan zalaparta handia sortu da azken urteetan,

biribilgune horren lurperatzearen aldeko plataforma bat sortu baitzen. Plataformaren eskakizunaren aldeko adostasuna nabaria da, plaza inguratzen duten etxebizitzaren balkoiak plataformaren banderola horiz josita baitaude.

Biztanlerian arreta jarrita, Iruñean 207.362 pertsona bizi dira (2021). Sanduzelaik, udal erroldaren 2021eko datuen arabera, 12.318 biztanle ditu. Populazioari dagokionez, interesgarria da jakitea Sanduzelaiko biztanleen %20,04a atzerritarra dela. Atzeritarren jatorriaren arabera, banaketa honelakoa da: %23,62 afrikarra, %44,89 europearra, %27,31 amerikarra eta %4,25 asiarrak edo ozeaniar jatorrikoak (Iruñeko Udala).

Arrosadia (%21,92) eta Buztintxuri (%20,1) dira proportzioan atzerritar gehien dituztenak. Sanduzelai hirugarren postuan dago kokatuta (%20,04) eta Etxabakoitz izanen litzateke hurrengoa (%19,2). Lau auzo hauek ehuneko hogeitaz inguruko atzerritar tasa dute, denek antzeko. Bitxia da ikustea hurrengo postuan Arrotxapea joanen %14,92rekin, diferentzia nabarmena antzeman daiteke (Ibidem).

Iruñeko auzoei begira jarraituz, urteko batzuetan besteko soldata gordinetan azken postuan dago Sanduzelai. Azken 10 urteetako datuek erakusten dute horretan dagoela. 2019ko datuei begiratuta, Iruñeko urteko batzuetan besteko soldata gordina 28.856€-koa da. Sanduzelairekin kasuan 24.509€-tan kokatzen da datua, ezberdintasun nabaria alegia. Zer esanik ez lehen postuan dagoen Zabalgunearekin konparazioa egiten badugu; 34.883€-koa da batzuetan bestekoa, hau da, ia 10.000€-ko diferentzia bi auzo hauen artean (Ibidem).

Hezkuntzari dagokionez ziklo guztietako zentroak daude auzoan. San Jorge haur eskolak euskara eta gaztelaniazko ereduak ditu. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzari dagokionez bi zentro ezberdin daude. Alde batetik San Jorge Colegio Público-a, zeinetan A eta G ereduak eskaintzen diren. Bertetik, D⁵eredua Sanduzelai Ikastetxe Publikoan eskaintzen da. Bigarren hezkuntzari dagokionez D ereduak Iparralde BHI institutua dago auzoan bertan, A eta G ereduak ikasleak Argaren bertaldean dagoen Julio Caro Baroja institutuan jarraitzen dituzte ikasketak.

Euskarari dagokionez ez dago Iruñeko auzoen araberrak daturik. Dena den, pertzepzioei so eginez, auzoan euskararen erabilera txikia dela esanien nuke. Hala eta guztiz ere, komunitate euskaltzalea saretuta dago, auzoko ekimen kultural eta aisialdikoetan presentzia nagusia duelarik. Horrek, nahiz eta agian kuantitate edo portzentaian zati txikia izan, Sanduzelai auzoan komunitate aktiboa euskaltzalea dela esan daiteke. Adibide bat aipatzearren, auzoko jaien kartelean, ekimenetan, kontzertuetan etab, euskara gailentzen zaio gaztelarari. Horrek aditzera eman dezake auzoari espreski dagozkion ekimenak jende euskaltzaleak antolatutak direla gehien bat. Bertela ere, D ereduak eskola eta institutua egotea adierazgarria da.

⁵ "A" ereduak gaztelaniazko ereduak da, euskara ikasgai gisa dutelarik. "G" ereduak berriz euskara ez da inon ere agertzen. "D" ereduak euskarazko immertsio ereduak da. («Modelos lingüísticos - Dpto - Educación»)

MARKO TEORIKOA

Identitateen eraikuntza eta Euskal Herriko joko-zelaia

Korrikak identitatean eragiteko duen gaitasuna bere izaera kolektibo eta parte-hartzaileari egozten zaio bertzeak bertze. Horraino iristeko, gizakion identitatea nola eratzen den xehatzea garrantzizkoa da, ekimen parte-hartzaileen elementua behar duen testuinguruan aztertzeko. Horri guztiari, Euskal Herrian dagoen joko-zelaia gehitu behar zaio, euskal izatea indartu ahal izateko baldintzak aztertzea alegia. Atal honetan, euskal identitatearen inguruan dauden zenbait kontzeptu nahasiren bueltan ibiliko naiz.

Lehenik eta behin, identitatearen eraikuntzari erreparatuko diogu. Identitatea gizataldearekiko loturan edo kontraposizioan sortzen dela defendatuko da lan honetan. Ez dira aipatuko, batik bat, umeei haien identitatearen eraikuntzan jasaten dituzten aldaketa kognitiboak etab, gizataldean zentratuko gara Korrikarekiko hurbilagoa delakoan.

Eraikuntza aipatzen da, izan ere, identitatea bertze pertsona edo taldeekiko ezaugarri edo jatorri partekatuei lotuta doalako eraikitzen. Ezin da esan identitatea gizakiok jaiotzetik dugun elementu multzoa denik; prozesu gisa ulertu behar da, gizakien bizitzetan ez baitago identitate trinko eta aldaezinik. Identitate horien eraikuntzan baliabide sinboliko zein materialen eragin nabaria dago (Hall, 2003: 169). Hala, Hallek defendatuko du identitatea egoera dialektiko baten ondorio dela, “Ni”a eta gizartearen arteko dialektikarena alegia. Kanpoko mundu horrekiko interakzioan eta bertan “eskaintzen” diren identitateen arteko jokoan garatzen da. (Ibid: 170)

Kanpoko mundu hori baldin bada identitateen “merkatua”, ezin da identitateen analisia egin ez bazaio leku konkretu batean eta garai konkretu batean gertatzen denari erreparatzen. Gizartearen dauden botere harremanak askotarikoak dira, horien bueltan garatzen diren diskurtsoetan sortzen dira elementu identitarioak:

Precisamente porque las identidades se construyen dentro, y no fuera del discurso, necesitamos entenderlas como producidas en sitios históricos e institucionales específicos, dentro de formaciones y practicas discursivas específicas, por estrategias enunciativas específicas. Mas aún, surgen dentro del juego de las modalidades específicas de poder, y por ello son más el resultado de las marcas diferenciadoras y excluyentes que un signo de una unidad identica, naturalmente constituida: una identidad en su sentido tradicional es decir, una igualdad sin diferenciación interna, que lo incluye todo. Sobre todo, y por oposición a como se las invoca constantemente, las identidades se construyen mediante la diferencia, y no fuera de ella. Esto implica el radicalmente perturbador reconocimiento de que es solo a través de la relación con el Otro donde la relación con lo que no es, con lo que precisamente le falta, con lo que se ha llamado su exterior constitutivo que puede ser construido el significado “positivo” de cualquier termino y, por consiguiente, su identidad (Hall 2003: 169-170).⁶

⁶ Agertuko diren zita literal guztiak nik irakurritako hizkuntzan jartzea hautatu dut, irakurleak nik irakurritako hori bera jaso dezan.

Garai posmodernoak bizi ditugu, ziurtasun eza da testuinguru honen erakusle nagusia. Batez ere krisi klimatikoak markaturiko testuinguru honetan, munduaren bukaeraren ideia ez da horren urrutikoa gaurko gizartean, egun, desesperantza nagusi. Esan bezala, errealitatea diskurtsiboki eraikitzen da eta egunerokotasunean dugu horren berri modu aunitzetan. Honek guztiak gizakion subjektibitatean eragin nabaria du eta, testuinguru honetan, Hall-ek subjektu posmodernoaren kontzeptua mahaigaineratzen du.

Subjektu posmodernoak identitate finko, esentzial edo betierekorik gabeko definitzen du. Identitatea etengabeko festa aldakor gisa ezaugarrituz (Hall, 1987 in Hall 2003: 3). Historikoki definituta dagoela defendatzen du, eta ez biologikoki. Horrela, subjektuak aldakorak dira momentuaren arabera, eta ez da bilatzen “Ni” koherente baten figurarik. Hall-en hitzetan, uste bada identitate bakar bat dagoela jaiotzetik eta hil arte (biologikoa), “Ni-aren narratiba” eroso bat sortu nahi delako da. Hau fantasia gisa azaltzen du. (Hall, 1990 in Hall 2003: 3). Izan ere, aldi-baterako identitateak eta aldaketa azkarak dira garai honetako joko-zelaia.

Laburbilduz, identitateak “Ni”ak gizartearekin egiten duen hartu-emanen eraikitzen dira. Eta eraikitzen direnagatik, moldagarriak dira, ez dira finko eta betierekoak. Bi premisa hauek oinarri hartuta, ikerketa dagokion testuinguru nazionalean kokatu beharra dago.

Gizataldeen identitateak imajinario kolektiboen partekatzetik sortzen dira bertzeak bertze. Aipatu bezala, berdintasun eta ezberdintasun horietatik eraikitzen dira identitateak. Nazioek identitate kolektiboak elikatzeko duten azaltzeko asmoz “Zoparen teoria orokorra” (Aranguren, 2021) baliatuko dut:

Gizatalde orok bere zopa propioa ekoizten du. Munduko gastronomiari egiten dion ekarpena da.

Ura hizkuntza da. Osagai desberdinak harremanetan jartzen dituen ardatza. Ez da egia urak gusturik ez duenik. Urak bere zaporea du, baita kolorea ere. Giza komunitate bakoitzaren ura bere kosmogoniaren adierazpen komunikatiboa da.

Zopa osatzen duten gainontzeko osagaiak lurralde horren natura eta kultura paisaiaren fruitu dira. Klima, geologia, orografia, landaredi eta aniztasun biologikoaren zein giza presentzia eta jardueraren emaitza den natura eta kultura paisaiatzat ari gara. Gizatalde horrek partekatzen duen imajinario kolektiboa osatzen duten kultura elementuak ere zoparen osagai dinamikoak dira.

Eltzeak eta bere tamainak gizatalde horren ekoizpen gaitasuna adierazten dute. Gero eta eltze handiagoa, orduan eta zopa gehiago ekoizteko gaitasun handiagoa.

Sua transmisio gaitasuna da. Gero eta sugar indartsuagoak, orduan eta difusiorako gaitasun handiagoa izanen du komunitateak. Kultura horrek, bere zoparen lurrina hedatuz, munduko kulturen kontzertuan parte hartuko du.

Estalkia, azkenik, eltze guztiek ukan ez daukaten elementua da. Su gaitasunarekin elkarlanean, gure zopak unibertso gastronomikoan dauden gainontzeko saldekin izanen duen harremana kontrolatuko du estalkiak.

Aipatu osagaiek, sukaldaritza tresnek, sua kontrolatzeko gaitasunak eta salda bera nahasteko ohiturek egiten dute zopa den bezalakoa (Ibidem: 46).

Iruditzen zait modu argigarrian azaltzen dituela Arangurenek imaginario kolektibo baten nondik norakoak. Batez ere, estalkiaren metaforari erreparatzea gustatuko litzaidake, hau baita modernitatetik aurrera ezinbertzekoa den zoparen partea. Estalkirik gabeko (estaturik gabeko) nazioek ez dute haien zoparen kontrola. Bertze nazio batzuek haien lapikoa hartu eta zopa guztia (tamainaz, txikia dena) bertze eltze handiago batean diluitu baitezakete. Hau gertatzen zaigu Euskal Herrian; gure zopa bi eltze erraldoien artean banatu nahi dute, Frantziar zein Espainiar eltzeetan diluitu dadin. Testuinguru honetan, bizirauteko bitarteko ezinbertzekoa bihurtzen estalkia. (Ibidem: 47)

Testuinguru orokorra kokatuta, eta nazioek haien identitateei forma emateko duten gaitasuna (edo Euskal Herriaren kasuan, gaitasun eza) euskal identitatearen nahasmenduan argia jartzea da hurrengo lerrootako intentzioa.

Argitze bidean, Edu Apodakak egiten duen euskal identitatearen irakurketa baliagarria da oso. Euskal identitatearen inguruan hitz egiteko “euskal zera” erabiltzen du. Euskal zera hori ez da ezer berez, praktikan sortzen den ikuspegi bat, esanahi edota zentzu bat baizik (2015: 26). Apodakaren horrek “euskal” hitzaren zehazgabetasunari buelta ematen dio. “Euskal” kontzeptuak, egun, ez dio erreferentziarik egiten subjektu konkretu bati, izan ere, ezberdinak dira egun egiten diren erabilerak. “Euskal” erabili izan baita, adibidez, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabak osatzen duten Espainiar autonomia erkidegokoak diren hainbat gauza izendatzeko (produktuak, batik bat). Erabili izan da ere euskarari loturikoei: euskaldun, maiz, euskaraz dakienari esaten zaio, baina asko dira haien burua euskalduntzat duten eta euskara ez dakiten pertsonak. Berdina Euskal Herriari (Korrikan adibidez) aitortzen zaion eremu geografikoko biztanleei dagokienez:

Agerikoa da euskal identitatea eta euskal herritartasunak ez datozela bat. Gaur gaurkoz, euskal herritartasun ofizial bakarra partziala eta subordinatua da, eta ez du inondik inora bat egiten “euskal populazio guztiarekin” ezta euskal jende ororekin ere. (Apodaka, 2015: 25)

Horrekin guztiarekin, baliagarritzat jotzen dut Apodakaren ekarpena, gainera, Korrika bezalako ekimena ikertzeko ezin hobeki azaltzen duena; oso eta arauzkoa izatera heltzen ez den identitate-anomalia sorta zabala da, bertzerik ez (Apodaka 2015: 25). Oso eta arauzkoa ez dela esatean, egitura faltari egiten zaio erreferentzia, definigabetasunari. Ez dago mugarik euskal izatea definitzeko, arautu gabeko esparrua da, ezin dena inoiz osotzat jo.

Identitatearekin jarraituz, jardueretan eta ekintzetan jartzen du pisua batez ere autoreak:

Jardueretan esanahiak zehaztuz, zentzua sortuz, posizio eta praktika sozialak finkatuz, eta batez ere, norbait izanez adierazten eta eraikitzen duguna da identitatea. Jarduera horien bidez, esanahiak eta jokaerak finkatu nahi ditugu, kodeak eta egiturak eraiki, eta horregatik, jarduera horiek eragile edo subjektu bakar bat dutela pentsatu ohi dugu. Eta identitateak badu subjektua, guztiok gara. (...) Hortaz, Euskal Herria izena entuzten dugunean gogoratu beharko genuke ez dela entitate bat, jende asko biltzeko eta bereizteko praktika sozial multzoa baizik (Apodaka, 2015: 73).

Praktika sozialen multzoa den heinean, ez da iturri batetik edo norbaiten mandatutik sortzen dena eta, horrek, euskal identitatea gatazka, antagonismo eta nahasketa aunitzetatik eratortzea eragiten du. Mugagaitzak diren jarduera eta ekimen guztien jarioak osatzen dute euskal identitatea gaur-gaurkoz (Gabilondo in Apodaka 2015: 21).

Apodakak egiten duen ekarpena indartzearen, Bill Schwarzek urte batzuk lehenago argitaratutako testuetan ideia bera ageri da. Lehenik eta behin, indartzen du nazioa ez dela entitate politikitzat bakarrik hartu behar, baizik eta honek esanahiak eta errepresentazio kulturalen sistemak ere sortzen dituela (Schwarz 1986 in Hall, 2003: 14). Beraz, pertsonak ez dute bakarrik identitate bat bereganatu eta erreproduzitzen, haien jardueren bitartez haien nazio identitatearen ezaugarrien subjektu aktibo dira, eragile zuzenak.

Premisa hauek onartzen badira, argi dago uko egin behar zaiola nazioaren ideia puruari, nazio-kidetzat edo identitate-nazional hori gorpuzten duen oro kapaza bada identitate horretan esanahiak sortzeko. Lehenago marraztu den joko-zelai posmodernoan gainera, aski garbi geratu da identitate aldakor horiek ezin direla estankoak izan, horrela, Hallek dioen bezala, nazio guztiak hibrido kulturalak dira jada (2003: 17).

Nazioari dagokion identitatea gai nagusia izanda ere, analisisan ikusiko den moduan identitateen kontua gero eta marko bananduagoetan mugitzen ari da. Globalak (nazioz gaindikoak) eta *mikro*-ak (auzo edo herrikoak) gero eta garrantzi handiagoa dute:

“Las identidades nacionales siguen siendo fuertes, especialmente con respecto a asuntos como derechos legales y ciudadanos, pero las identidades locales, regionales y comunitarias se han vuelto más significativas. Por encima del nivel de la cultura nacional, las identificaciones “globales” empiezan a desplazar y, algunas veces, a invalidar las nacionales.” (Hall, 2003: 22)

Korrikari hurbilduta, modu aunitzetan ematen da Euskal Herriaren gorpuztea, hurrengo atalean aipatuko da ekimen parte-hartzaile gisa egiten duen ekarpena, baina euskal zerari lotu ahal zaizkion eta agerikoak diren elementu batzuk azpimarratu nahi ditut atal honetan.

Batetik, Frantziar eta Espainiar estatuak Euskal Herriaren barruan marrazten dituen mugei egiten zaien intsumisioa dago. Korrikak muga pasatzen duenean euskal batasunaren irudikapena gertatzen da (Valle Murga 1988: 122). Bertzetik, Euskal Herriaren lurraldetasuna modu grafikoan ageri da karteletan. Gainera ez da inolako banaketarik egiten probintzien artean; agertzen diren erreferentzia bakarrak lasterketari dagozkionak dira; hiriburuen izenak, abiapuntu eta iritsiera lekuak eta ibilbidea oro har.

Horrekin Korrikak bere izatean dituen euskal identitatearen lehen zantzu batzuk aurkezten dira. Hurrengo ataletan sakonduko da horretan. Atal honetan, beraz, identitatearen inguruko irakurketa egin da, nazioaren aldagaiari bereziki erreparatuta. Hurrengoan, ekimen parte-hartzaileek identitateetan eragiteko duen gaitasuna aztertuko da.

Ekimen kolektiboak identitatean

Aipatu dudan moduan, bigarren atal honetan ekimen kolektiboek norbanakoen identitatean eragiteko gaitasunean jarriko dut fokoa. Gizataldeak elkarrekin ekintza berdin batean lortzen duten kohesioa eta pertinentzia sentimendua azpimarratuko ditut.

Ekimen kolektiboak pertsonen arteko sozializazio momentuak dira, elkarrekintzan sortzen direnak. Talde esperientziak dira eta, askotan, karga sinboliko handia izaten dute.

Inkonformismo eta aldarrikapena horri guztiari batzen zaio Korrikan. Herriaren batasuna eta hizkuntzaren gaiak lehen lerroan jartzen dira Del Valle Murgaren arabera (1988:44).

Autore honek ikuspegi antropologiko sakonetik aztertu zuen ekimena, hainbat erritual kolektibo barnebiltzen zituela aipatu zuen. Liminaritate egoera sortzen dela aipatzen du:

“La experiencia global de korrika es la de una serie de rituales colectivos (...) en un tiempo cronológico determinado, se construye un espacio temporal aparte del ordinario, que permite actualizar externamente una concepción política, lingüística y cultural propia de una sociedad utópica. En ese tiempo se da una superación de las contradicciones que afectan principalmente a la lengua y al territorio” (Valle Murga 1988: 285).

Del Vallek ematen dion erritual itxurarekin bat egiten dute Korrikaren inguruan idatzi duten bertze hainbat autorek; euskal komunitatearen nortasun kolektiboa indartzen dela aipatzen dute, baita erritual izaera duenaren ideiarekin bat egin ere (Galparsoro et al. 2017: 77). Psikologiaren arlotik egindako ekarpenak bide beretik doaz:

“Korrika contains all the elements of a collective ritual and therefore the conditions for the collective effervescence to arise (i.e., PES), as well as the emotions of enjoyment, self-transcendent emotions and kama muta. The ritual, as a whole, is made up of symbolic behaviors that represent and claim the territory of the Basque language and the entire Basque culture” (Zabala et al. 2023: 4)

Zabala eta enparauek eferbeszentzia kolektiboa aipatzen dute Korrikan gertatzen dena azaltzeko, honek, “kama muta”⁷ (psikologiaren arloan sentsazio batzuek sortzen duten emozioa adierazteko ohikoa den kontzeptua) bezalako emozioak sorrarazten dituela diote. Eferbeszentzia kolektiboa sortzea lortzen duen ekimen gisa kokatzen dute ikerketa horretan. Begiratu diezaigun honek suposatzen duenari.

Azpimarratzen dute ekimen kolektibo jendetsuek parte-hartzaileengan ondorio positiboak dituztela maila indibidual eta kolektiboan. Maila Indibidualari dagokionean, gizataldearekiko kohesio sozialean laguntzen dute, bai identitatearen elementuak partekatzerako orduan baita autoreak aipatzen dituen *social beliefs*⁸-ak partekatzear ere. Maila kolektiboan, autoestimua

⁷ “Kama muta is an emotion used to refer to being moved by love of others (Fiske et al., 2017; Zickfeld et al., 2019). It is based on the horizontal sharing of relationships and arises from the sudden activation of these relationships in which people perceive each other as an equal in some essential aspect that they share (Fiske, 1992; Fiske et al., 2017; Seibt et al., 2019). For example, reunions, reconciliations and acts of friendship are some of the experiences that can evoke kama muta (Alfaro-Beracoechea and Contreras-Tinoco, 2021). During the emotional experience of kama muta, people feel mutual love, identification, solidarity, pity, kindness and devotion, promoting the desire to commit more strongly in those relationships (Fiske et al., 2017; Zickfeld et al., 2019) (...) In addition, some works suggest that social movements can arouse kama muta and induce a sense of moral commitment toward other people, for example, arousing the motivation to support causes related to a group” (Zabala et al. 2023: 3)

⁸ Jatorrizko hitza erabili dut, edozein itzulpen baino argigarriagoa iruditzen baitzait. Euskaraz “sinesmen sozialak” esan nuke.

eta eraginkortasun kolektiboetan gorakada somatzen dela (Zabala et al. 2023: 2). Indibiduoarengan eta taldearengan dituen eraginak banatzen dituzte, bi hauen kohesioari lotuta. Galpasoro eta enaparauek mahaigaineratzen dute: “Askotan, norbanakoaren identitateari taldeak ematen dion garrantziaren arabera gerta daiteke norbanakoarentzat taldeko partaide izatea bera identitate pertsonala baino garrantzitsuagotzat jotzea.” (2017: 79).

Bertzetik, eferbeszentzia kolektiboa elkartzen den jendearen arteko konexio eta batasuna lortzen duela mahaigaineratzen du. Emozioak eta Korrikaren kasuan, emozio positiboak eta eferbeszentzia horrek eragin positibo nabaria duela (Zabala et al. 2023: 2). Garrantzia ematen dio horri Apodakak identitateari lotuta, identitate positiboa izateari. Gainera, Zabalak egin bezala, autoestimua kontzeptua ere agertzen da:

“Tajfelen teoriaren arabera identitate sozial positiboa behar dugu, gure autoestimua handitzeko edo, eta gizarteak kategoria sozial askotako menuak direnez, han dauden artean guri egokitu zaizkigunak eta besteak alderatzen ditugu”. (Apodaka, 2015: 56)

Identitatean eragiten du sentazio positiboak izatea indibidual eta kolektiboki komunitate baten baitan. Korrikan, zeinetan euskal komunitatea gorpuzten den, parte-hartzaileek sentazio positiboak izaten dituzte, haien zoriontasunak gora egiten du. Arlo kolektiboan ere azpiratuta dagoen identitatearen eraginkortasuna eta ahalduntzea gertatzen da. Beraz, bi plano horietan indartzen da.

“Finally, collective gatherings in addition to being beneficial at the individual level, can also be beneficial at the collective level, and increase perceived collective efficacy —the shared belief of a group in its ability to organize and execute the actions required to reach certain levels of achievement (Bandura, 1997; Zumeta L. et al., 2016; Zumeta et al., 2020, 2021). When it comes to minority or discriminated groups, and this perceived efficacy is aimed at counteracting existing power relations and influencing social change, it is referred to as collective psychological empowerment (Drury and Reicher, 2009), which may also be strongly related to the well-being of people (Zabala et al., 2020).” (Zabala et al. 2023: 3)

Garrantzitsua da Korrikak duen elementu batekin jabetzea (hurrengo paragrafoan zehatzago azalduko da), izan ere, ez da identitate edo izate baten parte izateko aukera eskaintzen, baizik eta zehaztugabea den izate batean subjektu izateko aukera ematen da (Apodaka, 2015: 267), eraikuntzan parte hartzekoa, alegia. Subjektu aktibo, ez kontsumitzaile.

Horretan guztian, garrantzitsua da oso Korrikan sortzen den horren ezaugarritzea, hau da, zein da Korrikan indartzen den balizko identitate hori?. Apodakarekin bat eginez, eta azken paragrafoaren ideari jarraiki, ezin da esan zehaztutako identitate bat denik Korrikan indartzen dena; Korrikak Euskal Herria irudikatzen du, edo hobeki esanda, **Euskal Herria Korrikan egiten da.**

“Korrika Euskara edo Euskal Herria esateko beste modu bat baino ez da, gauza bera direlako. Izankideak dira. Euskal Herria ez da beste inon, beste maila ontologiko batean, Korrikan da.” (Apodaka, 2015: 161)

“Horrenbestez ere, Korrika Euskal Herria izanarazteko praktika bat da (eta euskara, eta euskal kultura, eta euskal lurraldea... eraikitzeeko praktika). Ez da ezeren sinbolo, ez dago absente baten orde, jario edo traiektoia bat asmatzen eta josten baizik. Euskal Zera Korrika antzeko praktiken konfigurazioa da, haietan zentzu eta adiera bakar finkoetatik askatu eta loka ibiltzen dituztelako adierazleak, beste zentzu eta adiera zenbaitekin lotuz, eta era horretan praktika-kateak interkonektatzen dituztelako.” (Apodaka, 2015: 163)

Euskal Herria estatu egiturarik gabeko nazio da, eta beraz nonbait existitu badaiteke ekimen kolektiboetan da. Del Valle Murgak Korrika aztertzean, bat egiten du honekin:

“Asimismo y este es el punto relevante del estudio, se intenta demostrar cómo en korrika, a la vez que aparecen numerosas contradicciones, se intenta resolver algunas de ellas a un nivel simbólico, produciéndose en distintos momentos de la carrera y a través de distintos mecanismos una situación liminar y **una actualización de la metáfora de la unidad vasca, especialmente en lo que concierne a la lengua, al territorio y a la aceptación o rechazo de un proyecto cultural concreto**” (Valle Murga 1988: 20)

Apodakarekin hitzek borobilduko dute aipatutako guztia: “Identitate kolektiboa ez da praktika komunen kausa, ondorioa baizik” (Apodaka, 2015: 253).

Arrakastaren zergatiak

Korrikak sorreratik bi helburu nagusi izan ditu. Batetik, AEKren finantziazioaren zutabe izatea eta, bertzetik, euskalduntzearen aldeko aldarrikapena eta euskararen beraren indartzea. Nik ordea, hasieratik egin dudana gisara, euskal nazioaren irudikapenean duen garrantziari ereparatu diot. Atal honetan azken horren bueltan duen eraginkortasunari begiratu diot. Beraz, nazioaren irudikapenari lotuta duen eraginkortasun politikoa zehazten ariko naiz lehenik eta ekimenaren arrakastari helduko diot ostean.

Korrikak nazioaren alorraren bueltan eraginkortasun politikoaren definizioa ematen saiatuko naiz, herri mugimenduei dagokion definizioa oinarri hartuta. Joxemi Zumalabe fundazioaren gogoeta hartuko dut erreferentziatzat, eraginkortasun politikoaren baitan abiatu duten gogoetaren lehen pausoari helduta, baliagarria izanen delakoan.

Eraginkortasun Politikoaz ari garenean Herri Mugimenduek gizartean eragiteko duten gaitasunaz ari gara. Eragin hori, ordea, esparru eso ezberdinetan islatu daiteke.

Izan ere, Herri Mugimenduek helburu eta estrategia oso ezberdinak izan ahal dituztela aipatu dugu aurrekoan, eta aniztasun horrek eragiteko modu ezberdinak izatea ekartzen du, eragiteko gaitasuna eta modua erabiltzen den estrategiak, borroka moldeek... baldintzatzen dute eta. Hori dela eta, Herri Mugimenduen eraginkortasun politikoa neurtzerako orduan ezin daiteke irizpide homogeneizatzaileak erabili, HM bakoitzak jarduteko modu ezberdinak dituen euren eragina zentzu ezberdinetan nabaritu da eta. Neurri handi batean guk bai joko dugula irizpide batzuen baitan eraginkortasuna aztertzei. Praxi eraldatzaile ezberdinak egonen dira beraz irizpide ezberdinak egonen dira.

Horrez gain, maila instituzional zein sozialean dauden indar harremanei begiratu behar zaie HM-en eraginkortasunaren inguruko analisi egokia egin ahal izateko. (Joxemi Zumalabe Fundazioa, publikatu gabe).

Definizio hau zehaztasun maila gutxikoa da eta, hain zuzen ere, horrek egiten du baliagarri; ezin da modu berean ulertu Korrikaren eraginkortasun politikoa dirua lortzeko gaitasunean edo euskal zeraren indartzean. Definizio horrek eskatzen duen minimoa, ondorengoa da: dagoen egoera aldatzeko nahia. Korrikak hori, badu, Euskal Herriaren irudikapenetik hasita; oso leku gutxitan agertzen den lurraldetasuna esleitzen dio, adibidez.

Eraginkortasun politikoari lotuta, euskal zerak behar duen konfigurazio irekiari aipamena egin beharra zaio (Apodaka, 2015: 164). Korrikan, sentsibiltate eta ideologia politiko anitz batzen dira, horrek, zalantzarik gabe, mesede egiten dio ekimenaren arrakastari, bai eta horri esleitzen diodan funtzioari: Korrikan Euskal Herria egiten bada, euskal zerari esleitzen zaion irekitasun bera behar du.

Hari horretatik tiraka, Korrikaren izaera bateratzailearen ideia (bertze modu batean esanda, euskal zeraren irekitasunaren ideia) indartu dute zenbait autorek:

Etengabe errepikatzen den elementua dugu, beraz, Korrikaren izaera bateratzailea: Korrikak izaera inklusiboa duela azpimarratzen da, eta euskal komunitateko sentsibiltate ezberdinak elkarrekin bizitzeko, komunikatzeko eta mugiarazteko zubi lanak egiten dituela baieztatzen da hala. Egile horien arabera, bada, Korrikak euskaldun izateko modu guztiak barne biltzen ditu. (Galdos Areta eta Amezaga Albizu, 2023: 59).

Bertzetik, Korrikan parte hartzeko baldintzak oso lausoak dira. Esan daiteke baldintza bakarra euskal⁹ edozerekin nolabaiteko lotura izatea dela. Gainera, ekimen deigarria da, ekintzailea eta parte-hartzailea den heinean (Galparsoro et al., 2017: 77). Baldintzak horiek izanik, parte-hartzaileek osatzen duten *gu* hori, honela azaldu daiteke:

Korrikaren *gua* euskal hitzun komunitateaz gain, euskal hitzun ez den beste komunitate batek ere osa lezake. Besteaz ari garenean ere, euskararekiko duten jarreraren arabera, beste ezberdinak bereizten ditugu. (Galparsoro et al., 2017: 79)

Korrika aldarrikapen linguistiko baten inguruan sortu bazen ere, edizioak pasa ahala aldarrikapen sozial eta politikoek gero eta presentzia handiagoa izan dute lasterketan, 4. edizioan hori nabaria da jada (Del Valle Murga, 1988: 291). Aldarrikapen horiek linguistikoari kalte egin baino, mesede egin diotela esan daiteke. Askotarikoak diren elkarte, eragile edota alderdiek haien mezuak euskararen aldarriaren babespean egiteak transbertsala egiten du Korrikaren mezua (Galparsoro et al., 2017: 77). Oso ezberdinak diren aldarriak aurki ditzakegu Korrikaren baitan, are gehiago esan daiteke: bertze egoera batzuetan elkarren arerio politiko direnen arteko indar batuketa gertatzen da Korrikan (Ibidem: 82).

Arrakastaren bertze gakoetako bat antolakuntza da. Azpimarratuko nuke antolakuntza forma lokalizatuenari, hau da, auzo eta herrietan batzorde bidez egiten denari esker dela arrakastatsua ekimena. Del Valle Murgak behaketa parte-hartzaile bidez egin zuen ikerketan goretsi egiten ditu maila *mikro*enean egiten diren ekimenak, hor lortzen baitu Korrikak jendearekiko hurbiltasuna. Izan ekimen aldarrikatzaile edo festa-girokoak, maila horretan lortzen da errealitate konkretuarekin konexioa sortzea. Korrikan eraikitzen diren sinboloak¹⁰ horrelako ekimenetan barneratzen ditu herriak (Del Valle Murga, 1988: 90).

⁹ Euskal zera kontzeptuarekin bezala, "euskal" hitzari adiera zehaztugabea eman nahi diot, esleitzen diodan funtzioa hobe betetzen duelako horrela.

¹⁰ Korrikari erritual izaera Del Valle Murgak (1988, 2003) egindako gogoetatik hartu dut, sinboloak erritu horien ezinbertzeko elementu dira.

Auzo eta herrietan bultzatzen diren ekimenak horien arteko lehia modura ikusten dira Del Valle Murgaren iritziz. Hori, modu ageriagoan gertatzen da auzo edo herrien arteko lehia jadanik existitzen bazen (Ibidem: 167). Maila lokalean antolatzen diren ekimenak “Korrika Kulturala”ren parte gisa ulertzen dira. Txapel horren barruan ekimen askotarikoak bultzatzen dira, auzo eta herrietan antolatzen diren talde eta norbanako ezberdinekin konektatzeko aukera ematen dute. Ekimenak antolatzeko agente aktibo bilakatuz. Horrek guztiak Korrika 10 eguneko lasterketa hutsa izatetik askoz haratago darama. Korrika batzordeei eta ikastetxeei esker gertatzen da, analisisian ikertuko dugun bezala.

ANALISIA

Sarrera

Marko teorikoan identitateen azterketatik Korrikaren arrakastarainoko bidea egin dut. Analisisian berriz, kontrako noranzkoan egitea egokiagoa iruditu zait. Sanduzelai auzoan egin dudana landa lanean Korrikaren arrakastaren zergatiei erreparatu ahal izan diet lehendabizi. Korrikaren antolaketaren eraginkortasunetik, horrek ekimen kolektibo gisa dituen eraginetaraino.

Analisia zuzen egin ahal izateko, metodologian azaldutakoaren ildotik, behaketa parte-hartzailea izan dut oinarri. Sanduzelaiko Korrika batzordeko bileretatik hasi eta horrek antolatutako ekimenetan barneratu naiz lehen eskutik informazioa, sentsazioak etabar luze bat jaso ahal izateko. Elkarrikeria bidez lortu dudana informazioa ere ezinbertzekoa izan da analisiari modu errealistago batean heltzeko; auzoa eta bertako fenomenoak ezin baitira auzoko jenderik gabe ulertu.

Laburbilduz, Korrikaren auzo mailako antolakuntzaren arrakastaren nondik norakoak plazaratuko dira lehenik. Ondoren aztertuko da nola lortzen duten komunitatearen kohesioa ekimen kolektiboen bitartez. Azken atal espezifiko gisa ekimen horietan zein identitate kolektibo indartzen den zehaztuko da.

Arrakastaren gakoak, auzo-antolakuntza oinarri.

Korrikaren antolaketa maila nazionaletik Euskal Herriko auzo eta herrietaraino doa. Honek, antolakuntza modu bat adierazten du (filosofia bat ere bai), auzo eta herrietan jarritz tokian tokiko ekimenak antolatzekeo ardura. Lurraldetasunari dagokionez, antolaketa herrialdekakoa izateak Euskal Herriaren ulerkeria jakin bat ematen du aditzera. Aipatutako antolaketa nazional hori etengabe dago martxan, ediziotik ediziorako tartea bi urtekoa izanda ere. Gerora AEKko herrialdekako antolaketara pasatzen da, hortik eskualdeetara eta, azkenik, auzo eta herrietara.

Landa lanean, bigarrenari erreparatu diot; jada testuinguratu den Sanduzelai auzoko Korrika batzordean barneratu naiz. Korrikaren bueltako antolaketa horri dagokionez, atal honetan honen nondik norakoei erreparatuko diet.

Batzordean, Arantza da ibilbide luzeena egin duen kidea, 1999tik:

Batzordeetan sartu nintzen 1999an edo eta antolatzen zuen batez ere garai horretan Herri Batasuna eta inguru horretan zegoen jendea, zegoen euskara irakasle bat San Fermin ikastolakoa eta berak batez ere eramaten zuen eta gero hasi ginen gu hor. Lehenago ez zen horrenbeste gauzak antolatzen eta kulturalki eta auzoari eskaintzea. Gogoratzen dut egiten zela, zera, kuestazioak kalean pegatinak eta ezdakitzar gogoratzen ditut aspaldiko zera horretan, ez hainbeste jendeak parte hartzekoak edo kulturalak eta abar. (Arantza)

Duela 25 urtetik hona, asko aldatu da guztia, lehen diruari bideratzen bazitzaion gehiago, gaur egungo egoera oso bertzelakoa da, taldearen konfiguraziotik hasita. Gaur egun talde iraunkor bat da Korrika batzordea, hau da, Korrika garaian batzordearen papera egiteaz gain, eta parte-

hartzeko gonbitea urtero luzatzeaz aparte, euskararen inguruko bertze hainbat ekimen eta dinamika proposatzen dituzte. Adibidez, auzoko kolektiboentzat itzulpen zerbitzua dute martxan, Sanduzelaiko kolektiboen komunikazioa elebiz izatea xede. Horretaz gain, auzoko egunean edo egun puntualetan ekimen kulturalak antolatzeke batzen da taldea.

Arantzak du batzordea dinamizatzeko ardura, AEKko kide gisa berak jasotzen baitu eskualde mailako informazioa. Are gehiago, ostiralero Iruñerriko koordinazio bilera dute AEKko irakasleek. Korrika hurbiltzean, gai honek hartzen du zentralitatea.

Korrika batzordeek funtzio ezinbertzekoa betetzen dute auzo eta herri mailan, bi helburu nagusiren bueltan antolatzen dira:

Korrika kulturala deitzen diogu baina da pixkat korrikaren inguruan pues eh gauzak antolatzea mugimendu hori egoteko. Korrikak beste aldetik ere da diru iturria ezinbestekoa AEKrentzat eta hori ere mugitzen hasi behar dugu. Gurean ere hartzen du leku handia gauzak antolatzea gauzak berotzeko eta giro hori sortzeko korrikari begira. (Arantza)

Helburu hauek betetzeko Korrika batzordearen lehenengo bilera irekia deitu zuten aurtan, aurrekoetan bezala, modu irekian nahi duenak parte hartu zezan. Bilerak Karrikagune zentro komunitarioan egiten dituzte, auzoko bizitza komunitarioan erreferentzia handikoa den espazioan, hain zuzen. Aurtengo Korrika martxoaren 14tik 24ra izan zen, batzordearen lehen bilkura urtarrilaren 10ean deitu zuten. Aurtan, aurreko urteetan ez bezala, ez zen pertsona berririk batu batzordera:

Ba garai batean bai batzordera etortzen zirela igual flojoago edo ez zenean ezer eta bakarrik batzorde orduan bai saiatzen zirela ba guraso elkartetik ba ezdakit zer. Orain igual hartu duenez taldetxo itxura bai zabaltzen dugula, "lehenengo korrika batzordea" eta aurtan ez da inor berririk etorri baina pasaden urtean etorri ziren batzuk, guztiok ezagutzen ditugunak baina bai jende berria gauzetan militatzen edo parte hartzen. Eta orain nahiko... denak daude zera ezberdinetan baina ez datoz haien izenean batzordera printzipioz. (Arantza)

Arantzak erreferentzia egiten die jada taldean dauden 6 kideei, izan ere, horiek auzoko hamaika kolektibotan ibiltzen dira. Horrek indar handia ematen dio batzordeari, baita auzoko jende askotarikoarenganaino iristeko erraztasuna ere. Nik parte hartu nuen lehenengo bileran, oso argi ikusi nuen hau; zerrenda bat banatu zuten, auzoko 32 eragile ageri ziren. Horiei haien aportazio ekonomikoa baita ekimen batean parte hartzea eskatzeko zen zerrenda. Bertan zeuden 6 kideen bidez kontaktu erabat zuzena (bertze kolektibo horietan parte hartzen zutelako) edo zeharkakoa zuten eragile guztiekin. Aipatzearren, zerrendan era guztietako kolektiboak zeuden: alderdi politikoak, aisialdi taldeak, borroka konkretuak xede zituztenak, musika taldeak... Momentu horretan jabetu nintzen Sanduzelain zegoen herri mugimenduaren dimentsioa uste nuena baino handiagoa zela.

Aipatu talde horietatik, aunitzek paper garrantzitsua jokatzen dute batzordearen bidelagun gisa jardunaz. Bileretan nabari zen zeintzuk ziren paper berezia jokatzen zuten horiek, pertsona zein taldeak. Arantzak elkarriketan ere aitortu zigun:

Bai oso hurbil, guraso elkartea ez da etorriko baina haiek beti arduratzen dira behar dugunerako jai horretan ere beti hartzen dute lanen bat eta gero badaude guretzat leku erreferenteak

direnak, ba Paivy¹¹ da bat, oso hurbila eta beti erraztasunak jartzen dituen. Civivox¹² ere nahiko... hor dagoen pertsona ere oso hurbila da, gu ezagutzen gaitu aspaldi ibili dela urtetan hemendik eta erraldioen konpartsan egon zen aspaldi eta horrek laguntzen du. Da civivoxeko zera bat, eta horrek askotan ba faboreak egiten ditu, edozein gauza eskatzeko, programaziorako kontsultak egiten dizkigu “zer iruditzen zaizue hau edo beste”, bai dugula auzoan sare bat ez gaudela bakarrik, ezingo genuke. Gainera da pas, pas eta badakizu erantzungo duela jendeak. Eta ez bakarrik taldeak eh badago bestelako jendea inguruan eta pues... Korrikak edo euskararen zeraren alde lan egiteko prest. (Arantza)

Eraginkortasun handiko antolakuntza maila ikusi dut, bi astetik behineko ordubete eta erdiko bileretan Korrika Kulturala deritzonaren egitaraua antolatu zuten 3 bilera eskasetan. Lehen



2. Irudia Sanduzelaiko Korrika kulturalaren egitaraua. (Iturria: Korrika batzordea)

aipatutako bidelagun horiek, Payvi taberna edo Sanduzelai eskolako APYMA kasu, laguntzaile ezinbertzeko izan ziren euskara jolasetan edo Korrika festan batik bat.

Nire aburuz Sanduzelaiko Korrika batzordeak antolakuntza maila oso eraginkorra du eta, hori, bi gako nagusietan desglosatu daitekeela esanen nuke. Batetik, batzordean dauden kideen perfilak asko laguntzen du auzoko gero eta kapa handiagoetara iristeko, auzoko herri-mugimenduaren kide aktibo direlako. Gainera, kideen gaitasun horietaz aparte, badaude auzoko espazio, kolektibo eta norbanako konprometituak Sanduzelaiko Korrikaren alde lan egiteko prest daudenak. Bertetik, talde finkoa izateak eta taldeko dinamizatzaileak 25 urteko esperientzia izateak Sanduzelaiko Korrika Kulturalaren antolakuntzan, asko errazten ditu gauzak. Bileretan oso ohikoa zen “hori, betiko moduan eginen dugu ez? Ongi ateratzen dela” komentarioa entzutea (korrika laguntzeko itsulapikoak jartzeko

eztabaidan, Korrikako kartelak non itsasteko erabakitzerako orduan, zenbait funtzio betetzeko batzordetik kanpoko kideei faboreak eskatzerako orduan etab...). Oro har haien arteko harremana iraunkorra izatea eta taldean bakoitzak bere rola edukitzeak asko errazten du dena.

Antolakuntzaren zatia hau izanda, guri dagokigun landa-lana batzordeak antolaturiko simulakroan zein eskolek antolatutako korrika txikian dago bereziki. Baita Korrika egunean bertan ere.

¹¹ Paivy auzoko zentroan dagoen taberna bat da, biribilgune nagusian. Bertan elkartu ohi da giro euskaltzale eta auzotarra.

¹² Civivox Iruñeko 8 auzotan dauden espazioak dira. Bertan kurtso ezberdinak, ekimen kulturalak etab antolatzen dira, liburutegia izan ohi dute ere.

Ekimen kolektiboa, komunitatea batuta

Sanduzelain antolatzen den Korrika kulturalaren baitan, Korrika festa eta simulakroan egindako behaketa parte-hartzailea da ekimen kolektibo gisa nabarmendu nahi dudana. Bertan ikusi ahal izan nuen Sanduzelaiko euskal komunitatea nola gorpuzten zen eta zer nolako testuingurutan gertatzen zen guztia. Horrela helduko diot komunitatearen elkartzeko momentu nagusi honi.

Korrika festa eta simulakroa egun berean ospatzen diren ekimenak dira, Korrika iritsi baino 2 aste lehenago normalean, ostiralarekin. Iruñerriko Korrika batzordeek simulakroa egiteko ohitura dute, auzoko komunitatea elkartzeko batez ere. Sanduzelain ere ospatu egiten da, helburuak Korrikaren iritsieraren berri ematea eta lasterketa “ofizial”era begira giroa berotzea dira. Festari dagokionez, arratsalde batez auzoko plaza bat hartzen da, bertan arratsalde pasa egiten da askotariko eskaintzarekin. Arratsalde pasara zein simulakrora herri mugimenduko kolektiboak zein auzokideak daude parte-hartzera deituta, auzoko komunitate euskaltzalea elkartzeko asmotan.

Simulakroa ordea ez da Korrikak eginen duen ibilbidearen kopia hutsa (aurten, kale beretik pasa diren arren). Auzoko bi kale nagusietatik Korrikari ikusgarritasuna ematea eta auzoko kolektiboek lekukoa haien artean pasatzean datza. Simulakroa ibilbide nabaria duen ekimena da gaur egun:



Simulakroarekin (arratsalde pasa osoari egiten dio erreferentzia) ¹³ ez dakit noiz hasi ginen duela 6 korrika ala gehiago. Kontua da funtzionatzen duela kalean jendea biltzen dela jendea egoten da horren zain, ja badaki hori egiten dela “eman behar diogu buelta bat honi” baina hori, funtzionatzen duen zerbait denez eta kalean eta ikusten da jendea kalean elkartzeko ere. (Arantza)

Kartelean ageri den bezala, korrika festa Gortari plazan egitea erabaki zuten. Plaza hau Sanduzelaiko plaza nagusienetarikoa da. Izan ere, jende fluxu handikoa da. Horrez gain, bertan daude Civivoxa, auzoko supermerkatu nagusiak, fruta dendak, okindegiak... Korrika batzordeko kide batek zioen hau dela ikusgarritasun gehien eskaintzen duen plaza, baita antolatuta zeuden ekimenetarako leku aproposena. Gainera Sanduzelai “zaharrak” eta “berriak” bat egiten zuten plaza horretan, argi eta garbi ikusten zelarik (eraikinen itxuragatik) zein zen bata eta bertzea.

3. Irudia Korrika festa eta simulakroarendako batzordeak zabaldutako kartela. (Iturria: Korrika batzordea)


Giroan ahal bezain azkar barneratzeko asmoz, muntaketan laguntzera joan nintzen. Korrika batzordeko kideez gain, bertan zeuden APYMA (Asociación padres y madres), Umetxea¹⁴ eta

¹³ Parentesi artekoa nik idatzia.

¹⁴ Umetxea auzoko dinamizazio eta ekimen sozio-kulturalen antolakuntzan dabilen espazioa da. Batez ere haur eta nerabeekin egiten da lan bertan.

norbanako boluntario ezberdinak. Nabari zen auzoko ekimena zela eta auzokideak zirela prestatzen ari zirenak, batez ere gurasoak; kaletik zihoan jendea agurtzen zuten prestakuntza lanetan ari zirela. Hurbiltasunaren bertze adibide bat ematearren, argindarra alboko eraikineko lehenengo pisuko leihotik ateratako luzagarri batetik lortu zuten, baliabideak, beraz, autogestioaren bidez lortzen dituzte.

Martxoaren 1ean, ostiralarekin, 18:00etan zen deialdia. Hogei minutu lehenago, ordea, dena prest zegoen; musika martxan eta plazara jendea hurbiltzen hasia zen. APYMAko kideek mahai bat zuten pintxoak saltzeko, Umetxeako kideek umeek margotu zezaten mahai bat prest. Batzordeko kideek AEKko eta Korrikako materiala salgai eta Korrika festaren aurkezleek bafle bi alboetan eta pankarta bizkarrean. Hemen ikus dezakegu zein konpromiso hartzeko prest dauden kolektiboak auzoko horrelako ekimen baterako.



4. Irudia Simulakrarako petoak. (Iturria: Autorearen mugikorra)

Musikaren soinuarekin batera familiak gero eta gehiago ziren, halaber, Sanduzelai eskolako dantzarien presentzia jantzietan igartzen zen. 18:00etan bi aurkezleek arratsaldeko plana iragarri zuten mikrofonoetatik. Bi aurkezleak ez dira korrika batzordeko kide, bietako bat kide izandakoa bai ordea. Hor nabari da batzordeko kideen koordinazio lanak ez duela esan nahi lan-karga guztia haien gain erortzen denik, badute lanerako prest dauden pertsonen sare osatu bat. Arratsalde guztian zehar haiek zuten zer ekimen zetorren iragartzeko ardura baita musikaren kontrola haiek zuten ere.

Arratsaldea pasa ahala, ekimenak bata bertzearen atzetik joan ziren. Erraldoi konpartsa txikia eta handia heldu ziren plazara eta euskal dantzen emanaldia hasi

zen Sanduzelai eskolako umeen eskutik. 18:30ak ez zirela ere, bi pertsonak jada simulakroko petoa jantzia zuten, jubilatuen ordezkaria horietako bat. Eskuz egindako petoak ziren, batzordeko kideek egindakoak, kolektiboen izena eta errelebo zenbakia zeramatzaten idatzita. Ordubete lehenago jantzirik izateak emozioa eta aitortza jaso nahiaren sentsazioak transmititzen ditu. Horrela ematen zuen jantzita zeramaten kideen artean. Petoak banatzerako orduan gainera, ez zegoen deus zehaztuta. Korrika batzordeko 5 kideek kolektibo eta elkarteetako kideak hurbiltzen ziren heinean banatzen joan ziren. Momentuan espontaneoan izan zen, honek aditzera ematen du auzoan dagoen mugimendua hein batean saretuta dagoela. Batzordeko kideak parte-hartzaileekin harremanetan jarri ziren lehenago; bai simulakroan kolektiboaren parte-hartzea baieztatzeko baita festara gonbidatzeko ere. Azpimarratzekoa da kolektiboak direla hemen protagonistak, haiek baitira lekukoa eramateko borondatea izan dutenak. “Korrikaren kasuan, elkarte, eragile, alderdi anitzek dute euskararen aldeko aldarriarekin bat egin nahia, beraz, ohikoa da Korrikaren baitan, mezu ezberdin ugari

izatea” (Galpasoro, A et al. 2017: 77). Eragileek eta haien aldarriek protagonismoa dute simulakroan, haien mezuak zabaltzeko aukera ere izaten dute.

Arratsaldean zehar familiak izan ziren nagusiki plaza bete zutenak. Elkarrizketatu batek esan bezala “festa umeei bideratzen da (...) gehien ” (Korrika batzordeko kidea) “asko lantzen da korrika ikastetxean eta gaur hona etortzera bideratzen dituzte. Aste batzuk dira Korrikaren inguruan hizketan dabiltzala eta gaur hurbiltzen dira”. Nabaria da umeekin Sanduzelai eskolan egiten den lanketa, arratsaldean zehar hainbat ume-talde entzun dira aurtengo Korrikako abestia abesten. Horretaz gain, haiek hartzen dute protagonismoa ere ekintzetan; dantzariak eta konpartsa txikian batik bat.

Dantzariak, erraldoi konpartsa txikia eta handiak emanaldiak egin zituzten, azken bi hauek elkarrekin azken dantza egin zuten. Konpartsa handiko erraldoiek Korrikarekiko bi detaile utzi zituzten: erraldoietako batek lekuko bat zeraman eskuan eta petoa soinean bertze batek. Adierazi daiteke, beraz, eszenografia ez zela betiko bera, egun horretarako espreski egindako detailea baizik. Horrek, moduren batean, parte-hartze hutsa baino haratagoko nahi bat dagoela adierazten du, ekimenaren parte aktibo izateko nahia hain zuzen.

Adierazgarria den detaile batekin jabetu nintzen: Ama batek bere semeari esan zion: “mira a papá, saludalo” erraldoi bat zeraman bati erreferentzia eginez. Euskararekin lotura gutxi duen jende baten parte hartzearen adierazle izan daiteke: izan ere, Iruñean, euskaldun ez, baina euskaltzale diren familietan ez da batere ohikoa “papa” erabiltzea, “aita” eta “ama” erabili ohi da. Horra hor festa honen muintako bat: kolektibo anitzen elkarketak jendea *a priori* hurbilduko ez zen aldarrikapen batzuetara hurbiltzen da. Azken detaile honekin, korrikaren izaera bateratzailea lehen lerroan kokatzen da, baita Galpasoro eta enparauek aipatzen duten eragileen elkarketan ere (Galpasoro, A et al. 2017: 77). Sanduzelaiko euskal komunitate horren parte bihurtzen da familia hori, arratsalde pasa horren bitartez: euskal dantzak, herri kirolak, euskal musika... estimulu horiekin guztiekin batera igarotzen dute denbora hori. Arantzak berretsi zigun “Bai baziren umeak eta askok euskaraz ezer gutxi edo ez dute loturarik baina talde horiek ematen dute horretan ere. Ez dakit zer den baina azkenean zerbaiten parte sentitzen dira”.

Korrika festaren azken ekimenekin, simulakroa berotzen hasi zen. Gorputzak berotzeko jolasa iragarri zuten, sokatira herrikoia izan zena. Honetan ere, umeek egin zuten lehenengo tira haien artean, bigarrena gurasoak alde batean eta umeak bertzean egin zuten. Giroa nabari berotu zuen erronka honek. Aipatzekoa da egindako ekimen guztiek euskal kulturarekin lotura nabaria izan dutela, eta, beraz, ez dela Korrikaren diskurtsoa bakarrik baizik eta inguratzen duen guztiak ere euskal izatearen askotariko gorpuztea bultzatzen duela, parte-hartzaileak horrekin blaituz.

Bukatu bezain pronto, simulakroan lekukoa hartuko zuten kideek haien posizioetara joaten hasi ziren, eragileetako kideez inguratuta. Arratsaldean lasaitasuna izan zen nagusi, baina urduritasun orokortua sumatzen zen simulakroko momentuan. Simulakroa hasi aurretik, irakurketak borobildu egin zuen arratsaldeko egitaraua. Mezu zuzen eta zorrotzez josia egon zen, Azterketak Euskaraz aldarrikapenak aurtengo Korrikan hartuko duen protagonismoa azpimarratu zen lehenik. Euskal komunitatearen harrotzerako momentua zela ere aipatu zen. Arduradunak seinlatu ziren, instituzioetatik hasita. Korrikaren indarra mahaigaineratu zen,

euskal komunitatearen kohesioa irudikatze aldera, eta Korrikaren leloak “Harro Herri Korrikak” hartu zuen zentraltasuna. Komunikatuan agertutako azken hitzak literalki berreskuratuko ditut:

“Harro herri, euskaraz jakin zein ez, har dezagun dimentsio orotan eragiteko konpromisoa, herria batuta.

Harrotasunez! Konplexuak gainetik kendu, mugi dezagun euskararen herria, ingurua mugiarazi arte.

Harro hadi Kantauri itsasoa, Arabako mahats, Bardeako buztin. Harro zite Pirinioetako elur, Meatzaldeko burdina.

Elkarrekin nahi ditugu pausoak egin, espazio berriak irabazi eta, hitzez zein ekintzez, aldarri egin.

Gauden harro garenaz, eta egiten dugunaz. Bete ditzagun etxe eta kaleak euskaraz. Harro plazan, zein kanpoko bizitzan.

Harro herri, harro Sanduzelai eta harro KORRIKAn!”. (egunean irakurritako mezua)


Mezuak zenbait gako mahaigaineratzen ditu. Batetik, erreferentzia egiten dio euskara jakitea edo ez jakitea ez dela agente aktibo izateko ezinbertzeko aldagaia. Bertzetik, “herria”-ren kontzeptua darabil, honek duen izaera bateratzailearekin. Euskararen herria aipatu eta, ostean, Euskal Herriaren lurraldetasuna modu erabat poetikoan biltzen da, euskal abesti edo poema batzuen erreferentzia bitartez. Jarraian “garenaz” harro aipatzen da. Izate bat markatzen du horrek, identitate baten baitan kokatzen ditu entzuleak. Gure elkarriketatuetako batek, herri izaera hori ere azpimarratzen du Korrikaren bueltan:

Nik uste emozioen edo sentimenduen kontua dagoela hor bestela ez dakit. (barreak) ez dakit esaten zergatik. Baina hor nik uste dut jendeak ikusten duela ez dakit haiena islatzen dela horretan eta sentimenduak mugiarazten dituela, eta hortik ba arrakasta, diot nik. Eta herria, batze hori, azkenean zerbaiten parte sentiarazten zaitu ere. (Arantza)

Amaitzeko, irakurketak Sanduzelairi egiten dio erreferentzia. Azken horri loturik eta marko teorikoan ikusi dugun gisara, tokian tokiko identitateek gero eta pisu gehiago dute identitate nazionalen aurrean (Hall, 2003: 22). Hori dela eta, garrantzitsua da Korrikak Euskal Herriatik auzoetaraino egiten duen bidea (irakurketaren bukaeran egiten du bidea), eta Sanduzelain ere, agerikoa da hori. Arantzak aipatu zigunez, gero eta indartsuagoa dago Sanduzelaiko identitatea, gazte jendearen artean batez ere.

Parte hartzaileei galdetuta, antzeko gaiak mahaigaineratzen dituzte korrika simulakroan zergatik parte hartzen duten galdetzean: “para participar porque es muy importante que esto vaya para adelante, que cada vez se pueda hablar más el euskera que es la lengua del país”. Ikus daitekeenez, euskara ez dela ez irakurketan ez elkarriketatuen buruetan dagoen elementu bakarra. Euskal izatearen aldeko diskurtsoa da, nola ez, euskarari erabat loturikoa.

Mezu honen ostean abiatu zen Korrika simulakroa. Ibilbideak ez du Korrikak eginen zuen bidea simulatuko, baizik eta Sanduzelaiko bi kale hartuko ditu. Horietako bat, Sanduzelaiko kale nagusia, zeinetatik errepidetik egin zen ibilbidea (bide batez, egunerokotasuna desnormalizatuz). 1200 metro inguruko lasterketa izan zen, 18 errelebo tarteko aurtengoan. Urtetik urtera ez dira beti parte hartzaile berdinak eta, beraz, lekuko aldaketak ez dira beti distantzia berdinean egiten.



5. Irudia Txuriz simulakroaren ibilbidea. Txuri-gorri Sanduzelaiko mugak (Iturria: Google Maps).

Bizikleta bat zihoan lasterketaren buruan, AEK-ko banderola bat eta megafonoa zeramalarik gainean. Kaos egoera gertatu zen hasieratik, umeen emozioak markaturikoa. Lehen erreleboa erraldoi konpartsa handiarentzat izan zen, momentu horretatik bertatik hasi ziren oihiak eta aldarriak. “Sanduzelaian ere euskararen alde”, “ika ika ika, hemen dago korrika”, “bai bai bai, Sanduzelai”, “hemen gaude euskararen alde”. Lehen 50 metroak egin gabe zeudela hamarnaka ziren pankartaren aurretik korrika ari ziren haurrak; atzera begiratu gabe eta haien arteko lasterketa bihurtu zuten simulakroa bat-batean. Megafonotik etengabe ematen zen pankartaren atzetik joateko agindua, lekukoa zeraman pertsonak protagonismoa izan zezan. Bide beretik, errelebo bakoitzarekin batera megafonotik aipatzen zen zein zen lekukoa jasotzen zuen kolektiboaren izena eta pertsonaren izena ere.

Emozio gorakada bizi izan zen ikastetxeko haurren lekukoa hartzeko momentuan. 40 haur inguru, erdiek aurtengo ediziooko petoa jantzita zutela erritmo bizia jarri zioten lasterketari. Ez zen emozioendako denbora luzerik egon; 18 errelebo eman behar izan baitzituzten 1.200 metrotan, 30 segunduro lekuko aldaketa ematen zen. Ibilbide guztian zehar ikus zitekeen batzordeko kideek lekuko aldaketak zehazteko jarritako kartelak, Korrikan kilometroen karteekin egiten denaren antzera.

Poliziak bidegurutze bat mozteko agindua zuen lehenago, baina ez ziren garaiz heldu eta simulakroa geldiarazi zuten. Azpimarratzearren, poliziaren presentzia baimena eskatzen denaren seinale da, horrek suposatzen duen lana ere Korrika batzordeko kideen esku dago. Horren ostean, 200 metro aurrerago kale nagusia moztu zuten korrika simulakroak errepidea har zezan. Momentu gorena kale honetan gertatu zen. Kontrako noranzkoan ari ziren kotxeetako batzuk bozina jotzen pasa ziren, desnormalizazio ekintza batean bihurtzen da Korrika simulakroa. Arratsalde guztiko ikusgarritasun eta emozio handieneko momentua da. Oihuek indarra hartu eta umeak korrikaren abestia kantatzen zuten. Espaloitik ezagunak eta kaleko jendeak (jende nagusia oro har) txaloka ari da. Barruan korrika eta kanpoan dauden arteko elkarriketetan gonbitea luzatu zieten bi aldiz behintzat lasterketara batzeko. Umeek

haien dinamikarekin jarraitu zuten; auzoko errepidean jolasean egoteko aitzakia ezin hobe, haien arteko lasterketarekin jarraitzen zuten errepidetik.

Plazara bueltan iristean, musikaren soinua zen nagusi, animo oihuak eta txaloez lagunduta. Erraldoiak errepidera begira jarrita plazan, simulakroari begira egonen balira bezala. Korrikalari guztiak plazara sartu eta argazki herrikoia ateratzeko gonbitea luzatu zuten mikrofonotik. Pankartaren ostera hurbildu ziren parte-hartzaile guztiak eta, emozio handiz, denak elkarrekin oihu egin zuten: “bai bai bai, Sanduzelai!”. Ondorengo argazkian ikus daitekeen bezala, Simulakroaren buruan zihoan pankarta eta rotondaren eraisketaren aldeko plataformaren pankarta presente egon ziren.



6. Irudia Simulakroaren bukaerako argazkia. (Iturria: autorearen mugikorra)

Korrika festa eta simulakroak, Korrikaren beroketa edo iragartzea izateaz gain auzo-izaera eta komunitatearen kohesiorako arratsaldea da. Simulakroaren zergatiarengatik galdetuta aipatu dute “auzoko jendea egun bat da, askoz hurbilagoa, hemengo jendeak parte hartu dezake, lekukoa korrika handia ezin dute eraman baina hemen bai eta azkenean horrek ilusioa egiten du” “auzoko jendea ikusten da, nor dagoen lanean, kolektiboak ikusten dituzu auzoko guraso berri batzuk... eta horrek aukera ematen du auzoan barneratzeko eta mobida kulturaleran egoteko “ (korrika batzordeko bi kide)

Auzo-komunitatearentzat, pisu eta eragin handiagoa dute Korrika kulturalaren ekimenek Korrika pasatzen den eguna bera baino. Parte-hartzea askoz handiagoa da Sanduzelaiko jende askotarikoari dagokionez. Arantzak hala azaldu zigun:

Korrika simulakroan parte hartzen duten guztiek gero Korrikara ere batzen dira? ¹⁵Ez dut uste, aurtan ez dira etorri, Salseando taldea eta etorri izan dira egitera haien zera baina gero karreran nik uste ez ditudala inoiz ikusten. Da auzotik eta auzorako egiten dena eta prest daude horretan parte hartzeko. Ez dute inolaz ere kontra egiten baina gero igual korrika egunean ez dituzu ikusiko.(Arantza)

¹⁵ Beltzingoz elkarriketatzailerearen galdera delako.

Sortzen den komunitate hori, Korrika “ofiziala”¹⁶ pasatzen den egunean elkartzen dena baino askoz adierazgarriagoa da nire ustez. Kualitatiboki Korrika festan transmititzen diren mezu zuzen eta zeharkakoak askoz lotuagoak daude bertako errealitatera, eta bertatik eta bertarako lantzen dira. Marko teorikoan agertu den bezala, maila *mikro*-agoan egiten diren ekimenetan barneratzen dira mezu horiek guztiak (Del Valle Murga, 1988: 90). Elkartzen den auzoko jende horrek haien arteko harremanak euskal izatearen testuinguruan sortzen ditui eta horrelako espazioen bitartez ehuntzen da komunitatea. Sanduzelaiko Korrika batzordearen lorpen horrek, gainera, Korrikara batzeko gonbitea luzatzen du ere. Beraz, ekimen hau bi moduetan baloratu behar da: bere kabuz, Sanduzelaian euskal giroa zentzura ekartzen du, eta Korrikari loturik, parte-hartzaile potentzialak gehitzen ditu.

Auzo kohesioa lantzen

Martxoaren 15ean, ostiralekin, Sanduzelaiko korrika txikia ospatu zen. Korrika txikia ikastetxeek (haur-eskolatik eta instituturaino) antolatzen duten ekimena da. Korrikaren iritsiera iragartzen du eta, kasu honetan, Iruñera iritsi baino egun bat lehenago ospatu zen. Teresa del Valle-k aipatu bezala, Korrikaren esperientzia bere neurrira ekartzen dute txikiek, haiek hartzen dute zentraltasuna. Modu berean, Korrikaren osotasuna bildu nahi da Korrika txikian (Valle Murga 1988: 40).

Korrika txikian Sanduzelai Ikastetxe publikoa (D ereduakoa), San Jorge Colegio Publico-a (A eta G ereduakoa) eta Iparralde BHI (D ereduakoa institutuak) heziguneek hartu zuten parte. San Jorge Colegio Publico-ari dagokionez Euskara ikasgai gisa dutenek hartu zuten parte bakarrik (A ereduakoa). Iparralde institutuko 1. eta 2. mailakoak ere batu ziren lasterketan, 3. eta 4. mailakoak Biurdana institutuak antolatutakoarekin bat egin zuten, haien adinkideekin gusturago ibiliko zirelaren arrazoiak baliatuta.

Ibilbide luzea zuen aurretik argazkian ikus daitekeen bezala. Lehen tramoak errepide nagusitik joan zen, Korrika simulakroak hartutako espazio beretik. Hori pasata “periferia”-rat jo zuen, ibai ondoko paseorantz, zonalde berdeago batera.



7. Irudia: Korrika txikiaren ibilbidea. (Iturria: Korrika txikiaren antolatzaileak)

¹⁶ Ofizialarekin lasterketa nagusiari eginen diot erreferentzia, 11 egunez gelditu gabe dagoena.

Lasterketa, 11:30ak aldera aterata zen Iparralde institututik. Lehenago, patioan talde argazkia, pankarta eta musikarekin girotu zuten goiza. Nerabeen emozioek sortutako giro nahasia zen nagusi. Ekimenak berak baino, klase ordu horietan kanpora joateak sortu zuela esanzen nuke. Patioko lurrian pankarta bat zegoen, aurtengo Korrikan omenaldi berezia jasoko duten “azterketak euskaraz” kolektibokoei zuzenduta. Berezi adierazgarria da behean ezkerrean ikus daitekeen “4 + 3 = 1” Euskal Herriaren estatuen arteko banaketari erreferentzia egiten diona, Euskal Herriaren eremu geografikoaren irudikapenaz lagunduta. Korrika handiaren gisan, hemen ere Euskal Herri osoaren irudikapenak badu lekua eta presentzia, euskararen aldeko aldarriari lotuta doa.



8. Irudia Institutuko patioan pankarta. (Iturria: autorearen mugikorra)

Errepidetik hasi zen lasterketa, “Sanduzelai eta Iparralde euskararen alde” pankarta eusten zuten bi neskek. Azkar batean, emozioak eta haien arteko lehia tarteko, gazte gehienek atzean utzi zuten pankarta baita lekukoa ere; gazte nahasmenduan desagertu ziren biak. Irakasleek hau gelditzeko saiakera amaigabea ibili ziren, baina ez zegoen eraginkorra izan zitekeen oihu edo mandaturik. Lehenengo lekuko aldaketak azkarrak bezain kaotikoak izan ziren. Aurrean irakasle bat joan zen bozgorailuarekin, horrek, ez zuen lortu erritmoa markatzea eta denak joan ziren gutxinaka aurreratzen.

Gerora, eta lekukoa adinean behera pasatzen zen heinean, dinamika hau aldatu eta “ordenatu” egin zen lasterketa. Hori baino lehen, Iparralde institutuaren zatia bukatuta, lekukoa galdu egin zen. Lehen hezkuntzakoak esperoan zeuden eta ez zegoen lekukoa aurkitzerik. Luze egin zen minutu baten ostean agertu zen hortik nonbait.

Sanduzelai eskolakoek lekukoa haien ikastetxeko irudiaz jantzita joan zen batekin batera egin zuten, “tantatxo”rekin, alegia. Ume guztiek agurtzen zuten lasterketaren iritsierarekin batera. Lehen lerroan kokatu zen. Lekukoak adinean behera egin ahala, emozio handiagoz bizi zuten ekimena, ilusio askoz nabariagoarekin.

Momentu bereziena San Jorge Colegiara sartzean bizi zela esan daiteke. Patioan barna izan zen hauen lasterketa, izan ere, ez zegoen irakaslerik prest hauekin kalera ateratzeko. Patioan, zinta batekin perimetro bat sortu zuten, barnekaldean parte-hartzaileak zeuden eta kanpoan

bertzeak. Dena den, barruan zein kanpoan zeuden haurrak emozio handiz bizi izan zuten. Jende asko ikusten zuten haien patioan beraiekin bat egiten, ehundaka haur haien atzetik lekukoa eskuan zutela. Lasterketatik kanpo zeuden batzuk “hemen gaude euskararen alde” oihukatzen ikusi ahal izan nituen, harritzekoa iruditu zitzaidan. Aipatzekoa da askoz ere portzentai altuagoa dela jatorri atzerritarreko haurrak San Jorge Colegio Público-an. Izaera bateratzaile agerikoa izan zen momentu horretan (Galdos Areta eta Amezaga Albizu 2023: 59).

Geldiune bat egin beharra dugu hemen, Korrika txikiaren analisi sakonena merezi duen momentua baita. San Jorge Colegio Público-an Korrikarekin izan den ibilbideari eta gaur egungo egoerari erreparatzeko. Horretarako, egungo euskara irakaslearekin (Maria) eta bertan urte luzez lanean dabilen (Rosa) eta Korrika txikiaren bultzatzaileetako bat denarekin elkartu nintzen. Korrikaren lanketa Rosak bultzatu zuen lehendabizi:

Alegría a mi me da alegría y que buenos al fin y al cabo es deporte pero la gente, corre con esa alegría como es la fiesta y el deporte como reivindican el euskera me gusta, el caracter folclórico. (Rosa)

Las que hacía aitziber hacíamos a nivel interno que si que hablaba con los del ikastetxe y tal pero como no salíamos era consecuencia interna. Había personas que no les hacía gracia la korrika. Porque malamente la korrika se sigue viendo en vez de como algo cultural como algo político. Y hay gente que no le gustaba, que los niños no iban a salir, que llevate solo a los de euskera... y compañeras que pensaban como yo hacían como yo el otro día, yo voy a bajar. Hacer lo que queráis el resto pero yo les voy a enseñar esta manifestación cultural que hay en tu zona, donde vives. Y será que no quieren que lo vean así, y valorar el euskera y es una lengua de donde vives y creo que hay que valorarlo (Rosa).

Argi azaltzen du Rosak zer den Korrikan adierazten dena berarentzat, horretan ordea, ez du bat egiten autore gehienek adierazten dutenarekin. Ez da manifestazio kultural hutsa:

The Korrika processes is the loci of various interplays between language and politics but is not to be reduced to them: it merges identity, history, linguistics, sports, rules and material conditions, money and its management, physical strength, social memory, playfulness, entertainment, pedagogy, various temporalities, affection, local level politics, morality, communal actions, hope and dreams, and so on (Gaztañaga 2023: 11).

Momentu hartako euskara irakaslearekin batera hasi ziren antolatzen (duela 15 bat urte) eta aipatu zigun barne tentsio eta gatazka asko sorrarazi zituela. Baita oraindik ere sortzen dituela. Zuzendaritzarekin eta gainontzeko irakasleekin ere harremanak askotarikoak izan dira:

Zuzendaritzarekin hitz egin zen ea A ereduok edo G ereduok ere parte hartuko zuten eta ba haiek protagonismoa izateko. Orduan luzatu genien proposamena irakasleei ba esan genien zein zen abestia eta petoa margotzeko gonbitea luzatu genien eta batzuk parte hartu zuten. Orduan bueno ba erabaki zenez bakarrik A ereduok eta bueno ba zetoenez ere sanduzelaikoak ba bueno ba konfliktorik edo ez izateko. (Maria)

Mariak aipatzen digun horrek aurretik aipatu dugun zintaren azalpena da. Zinta, nolabait eskusio edo barne eta kanpo sentsazioak modu negatiboan irakurri nituen nik, eta hortik badu zerbait; sanduzelaikoekin konfliktorik egon ez zedin egin omen zen, baita A ereduokoei “protagonismoa” emateko intentzioarekin. Aipatu beharreko azken elementu gisa, bertzeak

bezala kanpora atera beharrean, patio barnetik egitearena da. Horrek azalpen erraza du, baita adierazgarria ere: kalera ateratzeko prestutasuna duten irakaslerik ez dago. Egia bada ere karrera kaotikoa dela, auzoko kaleetan bertze eskolako umeekin batera korrika egitea interesgarria den ekimena izan daiteke. Horrela izanda ere, irakasleek ez dute horretarako prestutasunik Mariak aitortu zigunez. Gainera, gurasoengandik kexak jasotzeko beldurrez jokatzeko zuten irakasleetako askok Rosaren iritziz, bere ustez, euskara zerbait politiko gisa ikusteagatik.

San Jorgeko patioa atzean utzita, Sanduzelai eskolara bidean jarraitu zuten. Kurtso guztiek lekukoa haien artean pasa ostean Sanduzelai ikastetxean izan zen itxierako ekitaldia. Eszenatokia eta megafonia prest, “harro herri” pankarta ikus zitekeen atzean. Hor igo ziren bi pankartak, tantatxo eta kurtso bakoitzeko bina ordezkari. Gela bakoitzean, Korrikarekin batera, euskararekiko konpromisoak hartu dituzte. Ordezkariak konpromiso hauek irakurtzera igo dira. Irakurtzeko garaian, mikrofonoarekin batera, lekukoa pasatzen diete; hau da, mikrofonoa duena eta lekukoa duenaren karga sinbolikoa parekatu daitezke. Hitzartze gehienak ildo beretik joan dira: “euskaraz hitz egiten dugu eta euskaraz hitz egiten lagunduko dugu”, “gazteleraz hitz egiten badigute ez dugula ulertzen esanzen dugu”, adinean gora joan ahala, poetikoagoak ere entzun dira, hala nola, Artzeren esaldia oinarri hartuta “euskara ez da galduko ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik” bota zuten 5. Mailakoek. Hitzartze guztien ostean, denek batera Korrikako abestiarekin batera sortutako koreografia dantzatu zuten guztiek, alaitasuna eta irribarreak nonahi.

Auzoari kohesioa emateko ekimen gisa ikusten da Korrika txikia, euskarari bultzada emateaz aparte. Gure elkarrizketatuetakoa bik bat egiten dute honetan, eta auzoko hezkuntza komunitatearen kohesioa ere aipatzen da:

Si yo creo que si se usa para hacer barrio. (...) pero bueno si, esa alegría no salimos del barrio porque tenemos todo en el barrio pero yo ultimamente me he hecho muy del barrio y ya no salgo. (Rosa)

Oso positibo eta oso polita ikusten dut, hezkuntza komunitate osoa elkartzea hor, auzoan eta errealitatea da. (Arantza)

San Jorge Colegioko gazteengan eragina ote duten galdetzean:

(...) ja behin eguna pasa zenean hurrengo egunean zen korrika pasatzen zela eta auzoan ikusi zuten eta joan ziren ikasleak: joe larunbatean ikusi eta korrika egin nuen, bertze batzuk soilik ikusi egin zuten. Nik uste landu izanagatik ba hurbildu zirela horra eta asko petoarekin joan izan ziren eta. (Maria).

Ondorioa gisa, ikusi dezakegu Korrika txikiak auzoaren eta hezkuntza komunitatearen kohesioa sortzen duen ekimena dela. San Jorge Colegioko irakasleek esan zutenez, eta institutoko irakasleekin hitz egindakoagatik, hizkuntza ohituretan ez du eraginik, baina auzoko hezigune ezberdinetako ume eta gazteak elkartzeko momentu gutxienetako bat da eta, hori, ez da nolanahiko gauza.

Eferbeszentzia kolektiboa Sanduzelain

23. Korrika martxoaren 14ean, ostiralarekin abiatu zen Irundik eta, lehen asteburuan, 16ean larunbarekin igaro zen Iruñetik. Eguerdian sartu zen Erripaginatik eta arratsaldean atera Etxabakoitzetik, bost ordu inguru igaro zituen hiriburuan.

Iruñeko kaleak Euskal Herri guztitik etorritako pertsonaz bete ziren. Alde Zaharrean goizean goizetik jende andana ikusten zen. Korrika martxan egonen zen bi larunbatetan zehar, Iruñea eta Donostia igaroko zituen, eta, euskal jendeak, ez du giro berezi hori bizitzeko aukerarik galtzen.

Sanduzelairi dagokionez 18:40ak aldera pasa zen, beheko argazkian ikus daitekeen bezala, azken auzoetariko bat izan zen. Buztintxuri auzotik iritsi zen lekukoa, eta auzoaren sarreran jasoko zuten lehen erreleboa. Simulakroan eta Korrika txikian bezala, lehenik eta behin errepide nagusitik eginen zuen ibilbidea, Sanduzelai etorbideetik, alegia. Gerora auzoko barnealdea gurutzatu eta rotunda pasa ostean Donibane auzora igotzen den maldatik alde egin zuen. Bi kilometrotan banatu zuten auzoko bidea.



9. Irudia Korrikaren ibilbidea Iruñetik

Ordu erdi lehenago, giro beroa zen auzoaren sarreran. 2. kilometroa hasten zen lekutik pasa nintzen eta bertan ziren jada Sanduzelaiko biribilgunearen lurperatzearen aldeko mugimenduko kideak, haien ikur horiez josita. Biribilguneari itzulia ematea tokatuko zitzairen hauei, haien aldarria zabaltzeko ezin hobeki. Lehenengo kilometroaren hasierara hurbiltzen nindoan eta jendea kale alboetan ikusten zen, esperoan, batzuk petoa jantzita ere. Urrutian, taberna baten parean, txistuak entzun zitezkeen, erraldioen konpartsa dantzan zegoen Korrikaren irtsierarako 30 minutu falta zirenean.

Auzoko lehen lekukoa jasoko zen lekuan jendea pilatuta zegoen. AEKko banderinak nonahi eta bafleetatik abestiak aditzen ziren bata bertzearen atzetik. Aurreko asteetan saldutako boletoen zozketa egin zen, kilometroa erosteko

gastuei aurre egiteko egiten dena. Jendeak hamarnaka boleto eskuetan, zozketari adi.



10. Irudia Sanduzelaiko lehen kilometroaren panela

Giroa oraindik ere lasaia zen 25 minuturen faltan, irribarreak barra-barra ikusten ziren. Korrika batzordeko kideen arteko konplizitatea nabaria zen, azken detaileren bat prestatzeko urduritasunak loratu baziren ere, ongi egindako lanaren sentsazioa zen nagusi. Arantzak esan zigunez, funtzio gutxi dituzte egunean bertan:

Egunak berak gutxiengoa da, gu egon horretan ya... normalean, a ver igual koinziditu du egun horretan bazkaria eta ez dakit zer baina, arazoa karrera ezer gutxi. Antolatzen duzu "zuek hau, zuek hau". (Arantza)

Gazteenak espaloiairen azken milimetroetan kokatzen ziren, errepidearen fondoari begirada kendu ezinean, Korrikaren furgoneta noiz agertuko zenaren urduritasunez. Petoak saltzen zituen furgoneta agertu zenean sustoa hartu zuten batzuk, Korrika zela pentsatuta. Txalo artean egin zioten ongi etorria. Honek berak, petoak saltzen dituen furgoneta txaloz agurtzeak, Korrikan lanean ari direnekiko aitortza gisa ikusten dut.

15 minutu falta zirenean denak errepidearen bi aldeetan kokatu ziren, azken minutuei epika berezia eman zion honek, izan ere, jende guztiaren atentzioa jada Korrika pasako zen lekuan jarri zuten, gurgildun aulkian doan gazte bat barne. Azken minutuetan Osasuna-Real Madril partidua futbol zelaian ikusi duen jendea batu da, 20-25 bat gizon gazte. Partidua duela 20 minutu eskas bukatu da eta, ondorioztatu daiteke, esfortzu berezia egin dutela lehenago ateratzeko Sadar futbol zelaitik. Leku batetik bertzera dagoen distantzia kontuan hartuta partidua bukatu arte itxoin izan balute, ezinen ziren garaiz iritsi.

3-4 pertsonak Korrikaren zuzeneko dute jarrita, ongi jakiteko non dagoen lasterketa eta zenbat falta den iristeko. Mugikorrari begira daudenen artean ika-mikak daude zenbat falta den adierazteko orduan.

Korrika iristeko momentuan furgoneta handia Sanduzelai etorbidearen hasieratik sartu zen, jendeak oihu eta txalo egin zuen ikustean. Hurbiltzen zihoan heinean, jendearen aurpegiak irribarrez betetzen hasi ziren, denek txalo egiten zuten. Lehenengo furgonetan kopilotu gisa zegoenak besoa tente eta ukabila itxita ateratzen zuen leihatilatik, zerbait irabazi balu bezala ospatzen ari da Sanduzelaira iritsiera. Arantzak bizi duenari buruz galdetzean: “Da emozio zurrumbiloa, bai, osea, gainera da emozio baina ikaragarritzkoa. Nik aurrekoan ikusi dut argazki bat eta banago horrela osea, da zerbait...”.

Lehen lekukoa Sanduzelai eskola eta korrika batzordeko kideen artean erdizka eramanen zuten, del Valle Murgak 4. Korrikan jaso bezala umeek ilusio berezia gehitzen diote momentuari (Valle Murga 1988: 38). Gauzak hautematea zaila zen, milaka pertsonaren artean korrika eta oihuka bainenbilen. Zoriontasun eztanda izan zen, bertzerik ezin da azaldu. Furgonetan igota animazioan ari zen pertsonak zuen aldarriak oihukatzeko ardura. “Sanduzelaien ere euskaraz”, “Hemen gaude euskararen alde”... entzun ahal izan ziren. Modu berean “Sanduzelai auzo langilea eta auzo borrokalaria” bezala definitu zuen.

Berezia izan zen auzoko meskita pasa zuenean korrikan. Bertatik atera ziren 10 bat pertsonak irribarre eta txalo artean ikusi zuten korrika pasatzen. Horren ostean, lekukoa Korrika batzordeko kideek hartu zuten. Hilabete batzuk lanean eman ostean haientzat “oparia” da lekukoa hartzea (Zabala et al. 2023: 3). Elkarrekin heltzen zuten ilusioz, bata bertzera besarkatuz. Furgonetatik haien lana eskertzen egon ziren, haiek gabe hori guztia posible ez litzatekeela esanez.

Azken txanpan errotondaren lurperatzearen aldeko kideek hartu zuten lekukoa, noiz eta errotondara sartu baino metro batzuk lehenago. Haien jantzi horiekin blaitu zuten lehen lerroa eta ibilbidean zehar zenbait pankarta jarri zituzten. Pertsona helduak ziren, horrek erritmoa jeitsiarazi zuen. Horrek lagundu zuen haien aldarria modu argiagoan entzun zedin. Kilometroaren bukaerara iristean bozgorailuetatik entzun zen plataformako kideei erreferentzia eginez “Gora zuek, denok egiten baitugu Korrika”. Hemen argi geratu zen Korrikak duen gaitasun bateratzailea, Arantzak ere horrela aitortu zigun lurperatzearen aldeko plataformakoei erreferentzia eginez:

Aurten auzoan, gurpildun aulkian zihoana, emakume horrek ez du euskal ezerekin eta auzogintza egin du beti eta rotondaren plataforman ez nuen imaginatuko. Eta horregatik izango ez balitz ez litzateke hurbilduko, kriston ikurriña horrekin eta egin zuen ilusioarekin bere zatitxoa ez da euskal zerbaitekin baizik eta auzogintzan ibiltze hutsarekin. Eta ikurriña hor egotea eta modu konszienteago edo ez hain konszientean bai eragiten duela nolabait ekintza hori egiterakoan hor egotea. (Arantza)

Hemen ikusten dugu, haien aldarria momentu gorenean eta masa oso handi batek babestua ikusten dutenean, momentu horrek jende masa horrekin konektatzen dituela. Jende masa hori, hain zuzen zere, euskal subjektua gorpuzten duten hori da. Beraz, lurperatzearen aldeko plataformako kideak subjektu horren parte aktibo izan ziren, komunitate horren kide (Galparsoro et al. 2017: 77).

Arantzarekin elkarriketaren azken momentuak batzordeko bertze kide batzuekin batera izan ziren, eta horrela aitortu zuten haiek ere:

Sentitzen duzun hori gero gainera hori ona bada jendea batzeko, erakartzeko ona da. Gainera korrika hurbiltzen denean jendearen ilusioa ez da behera joaten urteak pasa ahala horrek hor dirau. Oraindikan ere sentitzen da horrelako zirrara, jendeak bizitu egiten du momentua poztasunez eta itxoiten urdurasunez. Ekimena bera nolakoa den eta bakarra izatearena bakarrik hemen egiten dela eta berezi egiten zaitu edo berezia denaren parte. Gero klaro horrek zer dakarren beste urte eta bi urtetan behin eta jendearen aldetik euskararen sustapenean, ez dakit. Ikusi dut artikulo bat, eta egia da. Herrigintza egiten da, hori bistan dago, euskararen sustapenean egiten du, baina zerbait egiten badu herria da egiten duena. (Korrika batzordeko kidea, Josu)

ONDORIOAK

Lanaren bukaerara helduta, labor erantzun behar diogu lanaren galdera nagusiari: Korrikaren inguruan sortzen den mugimenduak balio ote du euskal izatearekiko atxikimendua sortzeko? Erantzun laburra baiezkoa da, baina kausa eta ondorioak aurkeztuko ditut jarraian.

Korrika euskal identitatea indartzeko baliagarria den ekimena da. Ekimenean identitatearen inguruko lanketari erreparatzea garrantzitsua da, ekarpen hori nondik datorren jakiteko. Lanean ikusi den moduan, euskal identitatea zehaztugabea da, ez dago egiturarik ez instituziorik hau elikatzeko edo arautzeko. Korrikan euskal izateari ertz ezberdinetatik hurbiltzen zaion jendea dago; euskaratik, euskal herritar izatetik, ohitura kulturalengatik... euskal edozerekin kontaktua izatearekin, aski da parte-hartzaile izateko. Horrek guztiak, Euskal komunitate zehaztugabe hori zehazten laguntzen du. Euskal subjektuaren gorpuztea ematen da Korrikan, hau da, Euskal Herria eta euskal izatea nonbait existitzen bada, Korrikan da. Hori, argi ikusi nuen Korrika simulakroan; euskal izatearekin kontaktua erraldioen konpartsa bitartez izanda ere, Korrikan parte hartzeko aski da¹⁷. Hori lotuta, euskal izatearekiko hurbiltasuna Korrikaren antolaketa formari esker da. Batzordekako antolaketa horri esker alegia.

Auzo eta herrietan egiten den lana da Korrika eraginkorra egiten duena euskal nazio identitatearen indartzerako. Sanduzelaiaren batzordeko kideek auzoko herri-mugimenduaren espektro oso zabal baten parte dira. Horren bidez kolektibo horiek guztiak Korrikara hurbiltzen dituzte eta, beraz, euskal komunitatera (honen gorpuztearen parte bihurtzen dituzte). Badira batzuk, Korrikaz gain, euskal subjektuaren partetzat dutela euren burua egunerokoan, hala nola D ereduko guraso elkarteak edo Sortu alderdi politikoa. Baina badira bertze batzuk Sanduzelaiko batzordeari esker hurbiltzen direnak euskal subjektuaren eratze horretara, aipatutako Erraldioen konpartsa edo Sanduzelaiko dendarien elkarteak batik bat. Hori dela eta, Korrika kulturean horrelako taldeen parte-hartzea gertatzea batzordeen gaitasunaren adierazle da. Korrika, nazio mailako ekimena izatetik, auzo aktibatzen eta kohesionatzen duen ekimena izatera igarotzen da, batzordekako antolakuntza formari esker.

Horri guztiari, Korrika ofizialaren una gehitu behar zaio. Marko teorikoan azaldu den gisan, eferbeszentzia kolektibo momentuen bitartez komunitatearen kohesio lortzen da, gutxitutako komunitateari ahalduntzea eta momentuko opresioari aurre egiteko gaitasuna ematen dio (Drury and Reicher, 2009 in Zabala et al. 2023: 3). Sanduzelaia ekarrita, auzoko 2. kilometroari begira jarri beharra dago. Biribilgunearen lurperatzearen aldeko plataformari eskaini zitzaion lekukoa eramatea. Horrek eragin zuen euskal izatearekin zerikusirik ez duen jende batek, euskal komunitatearekin batera eferbeszentzia kolektibo momentu bat bizitzea. Are gehiago, eferbeszentzia kolektibo horren protagonista izatea. Euskal komunitateaz inguratuta eta lekukoa eramatean zaila egiten da pentsatzea momentu horretan gorpuzten den subjektuaren kide ez sentitzea. Eferbeszentzia kolektiboa aipaturiko elementu guztiekin batera ulertuta, ondorio gisa baieztatzen dut komunitate horrenganako atxikimendua sortzen duela. 1988 Del Valle Murgak aipatu zuenak, beraz, gaurkotasan handia du: askotariko borrokak artikulatzen direla Korrikan.

¹⁷ Ikus “ekimen kolektiboa, komunitatea batuta” atala.

Honekin guztiarekin ondorioztatu daiteke Korrikak euskal nazio identitatea indartzeko balio duela eta euskal identitatea nonbait gorpuzten bada, bertan dela. Korrikak auzogintza bultzatzen duela Korrika kulturalaren bitartez, baita Korrikak berak ezartzen duen marko nazionalak, auzogintza ariketa horiek guztiak naziogintza bihurtzen dituela ere (eta aldi berean komunitate konkretuak ere kohesionatzeko balio du). Honi erreparatuta, ondorio nagusi gisa eskala *mikro*-ak (auzo eskalak) *makro*-an (nazio eskala) eragiteko duen gaitasuna kokatu nahiko nuke. Auzoetan Korrikaren bidez sortzen den komunitateak auzo mailako kohesioan ekarpena egiten du, Korrikak luzatzen duen mezua “herriari” hurbiltzen dio gainera. Modu berean, euskal izate baten inguruan ari dira eraikitzen auzoko izate hori. Hori, identitatearen inguruan ari garenez gero, ez ditugu banandutako bi eskala gisa hartu behar; auzo identitatea eraikitzen den terminoen arabera ekarpena eginen dio nazio mailako identitateari. Korrikak bultzatzen duen batzordekako antolakuntza, nazio mailako ekimen bat izanda ere, auzoko komunitateen indartzerako baldintzak sortzen ditu.

Aipatu bezala, Korrikak euskal nazio identitatea indartzeko (zehazteko) balio duen ekimen kolektiboa da, Euskal Herria subjektutzat duen bakarrenetarikoa. Euskal Herriak identitatearen indartzerako dituen hutsunei erreparatuta, ezinbertzekoa da Korrikaren eredua biderkatzea. Ikerketa honetan atera diren elementu batzuk, hala nola, ekimen kolektibo parte-hartzaileen balioa identitatean eragiteko edo Korrikaren batzordekako antolakuntza formak, irakaspen gisa gorde beharko dira estaturik gabeko nazioen identitatea lantzen jarraitzeko. Hori guztia, balioan jarri behar dugu. Hala eta guztiz ere, kontutan hartu behar dugu egungo estatu modernoek haien imaginario nazionalak indartzeko dituzten tresnak bi urtetan behineko ekimen parte-hartzaileak baino askoz indartsuagoak direla. Euskal Herriak estatu egitura burujabe horiek ez dituen bitartean, Korrika(n) jarraitu beharko dugu.

BIBLIOGRAFIA

- Apodaka, Edu. *Identitatea eta Anomalia*. Iruñea: Pamiela, 2015.
- Aranguren, Gaizka. "Zoparen teoria orokorra". *Jakin* 244 (2021): 42-61
- Galdos Areta, Maddi, eta Josu Amezaga Albizu. "Korrika: gizarte subjektuen bilgune". *Jakin* 258 (2023): 57–74
- Galparsoro, Amaia, Mirari Garmendia, Ekain Ormazabal, eta Nora Urbizu. "Irri, zirri, urri, Korrika iturri" *Ankulegi* 21 (2017): 75-91.
- Gaztañaga, Julieta. "Erronka(s) and a Transdisciplinary Approach for Basque Studies". *Territories* 3 (2023)
- Hall, Stuart. "¿Quien necesita identidad?" *Temas* 37-38 (2003): 168-177
- Valle Murga, María Teresa del. *Korrika: rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona: Anthropos, 1988.
- Valle Murga, María Teresa del. 2003. "La importancia del ritual en los procesos de etnicidad: la korrika vasca". In *Culturas en juego: ensayos de antropología del deporte en España*. Francisco Xavier Medina and Ricardo Sánchez. 103-120. España: Icaria.
- Zabala, Jon, Susana Conejero, Aitziber Pascual, Larraitx N. Zumeta, José J. Pizarro, eta Itziar Alonso-Arbiol. "Korrika, Running in Collective Effervescence through the Basque Country: A Model of Collective Processes and Their Positive Psychological Effects". *Frontiers in Psychology* 14 (2023): 1-14

WEBGRAFIA

- Iruñeko Udala. <https://www.pamplona.es/eu/hiria>
- Wikipedia: Sanduzelai. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Sanduzelai>
- Nafarroako Hezkuntza saila, eredu linguistikoak. <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/modelos-linguisticos>

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia Sanduzelai Iruñeko mapan (Iturria: Wikipedia).....	8
2. Irudia Sanduzelaiko Korrika kulturalaren egitaraua. (Iturria: Korrika batzordea).....	21
3. Irudia Korrika festa eta simulakroarendako batzordeak zabaldutako kartela. (Iturria: Korrika batzordea).....	22
4. Irudia Simulakrorako petoak. (Iturria: Autorearen mugikorra).....	23
5. Irudia Txuriz simulakroaren ibilbidea. Txuri-gorri Sanduzelaiko mugak (Iturria: Google Maps).....	26
6. Irudia Simulakroaren bukaerako argazkia. (Iturria: autorearen mugikorra).....	27
7. Irudia: Korrika txikiaren ibilbidea. (Iturria: Korrika txikiaren antolatzaileak).....	28
8. Irudia Institutuko patioan pankarta. (Iturria: autorearen mugikorra).....	29
9. Irudia Korrikaren ibilbidea Iruñetik	32
10. Irudia Korrikaren ibilbidea Iruñetik (.....	Errorea! Laster-marka definitu gabe.